



# HEZITZAILEEK ASKO EGIN DEZAKETE

ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERETAN  
NERABEEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA  
SUSTATZEKO

TRESNAK ETA ADIBIDEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





<b>I - ABIAPUNTUA .....</b>	<b>4</b>
<b>II - ERABILERAN ERAGITEKO TRESNAK ETA ADIBIDEAK .....</b>	<b>5</b>
<b>II.1 - Euskararen erabileran eragiteko tresnei buruzko taula.....</b>	<b>6</b>
<b>II.2 - Erabilera atseginareen urratseko tresnak .....</b>	<b>7</b>
2.1 - Hezitzaileak nerabeekin duen harremana I	
2.2 - Hezitzaileak nerabeekin duen harremana II	
2.3 - Nerabeen eta beste erreferenteen arteko harremana I	
2.4 - Nerabeen eta beste erreferenteen arteko harremana II	
<b>II.3 - Erabilera zuzenduaren urratseko tresnak .....</b>	<b>17</b>
3.1 - Nerabeek hezitzailearekin eta beste erreferenteekin duten harremana I	
3.2 - Nerabeek hezitzailearekin eta beste erreferenteekin duten harremana II	
3.3 - Nerabeek taldekideekin espazioan duten harremana I	
3.4 - Nerabeek taldekideekin espazioan duten harremana II	
<b>II.4 - Erabilera naturalera hurbiltzeko urratseko tresnak .....</b>	<b>28</b>
4.1 - Nerabeek taldekideekin denboran duten harremana I	
4.2 - Nerabeek taldekideekin denboran duten harremana II	
4.3 - Jardun osoko harremana	
<b>II.5 - Euskaraz komunikatzeko gaitasun ezberdineko nerabeak biltzen dituzten taldeei buruz .....</b>	<b>37</b>
5.1 - Euskaraz komunikatzeko gaitasunik ez duenen bat taldekide izateari buruz	
<b>III - ERANSKINA: ZENBAIT OHAR .....</b>	<b>39</b>

© TTAKUN KULTUR ELKARTEA

© GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. argitalpena, 2007

OHARRA: Debebatua dago honen edukia guztiz edota zatika erreproduzitzea, jatorrizko iturriaren aipamenik gabe.

**Maketazioa:** eragin.com

**Inprenta:**

**Lege Gordailua:**

**I.S.B.N.:**

HEZITZAILEEK ASKO EGIN DEZAKETE

*Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko proiektua Ttakun Kultur Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteriako eta Euskarako zuzendaritzen eskariz landu duen egitasmo bat da. Lanaren xede nagusia nerabeekin eskola orduz kanpoko jardueretan aritzen diren hezitzaileei euskararen erabilera sustatzeko tresnak eskura jartzea da.*

*Tresnak eta adibideak* deituriko dokumentu hau, *Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko* argitalpenaren osagarria da. Argitalpen horretan, 12 eta 18 urte bitarteko nerabeen eskola orduz kanpoko jardueren azterketa bat egiten da, eta, azterketa horretako ondorioetatik abiatuz, nerabeen eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko prozesuaren urratsak eta inplementaziorako prozedura jaso dira.

*Tresnak eta adibideak* deituriko argitalpen honetan, berriz, lanerako tresna zehatzak proposatzen dira, eta, tresnekin batera, haiek erabiltzeko kontuan hartu beharreko alderdiak eta aplikaziorako adibide jakinak ere txertatu dira.

Nolanahi ere, eta esan gabe doa, *Tresnak eta adibideak* izeneko dokumentu honetan proposatzen dena ulertzeko eta behar bezala erabiltzeko, ezinbestekoa da *Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko* dokumentuan jasotako oinarriez jabetzea.

Aipatu, bestalde, bi argitalpen hauek nerabeen jardueretan oinarritzen diren arren, haurren jardueretan euskararen erabilera sustatzeko oinarriak, tresnak eta adibideak ere landu dituela Ttakun Kultur Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteriako eta Euskarako zuzendaritzen babesean. Oinarri, tresna eta adibide horiek, *Begiraleek asko egin dezakete haurren artean euskararen erabilera sustatzeko* argitalpenean aurkituko dituzu.

Hiru argitalpenak web gune hauetan ere jarri dira:

[www.gipuzkoeuskara.net](http://www.gipuzkoeuskara.net)  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
[www.ttakun.com](http://www.ttakun.com).

Segidako orrialdeetan, nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko balia daitezkeen hainbat tresna proposatzen dira eta adibide batzuk aurkezten.

Tresna-adibideak, berez, *Hezitzaileek asko egin dezakete eskola ordutik kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko* proiektuaren oinarriak jasotzen dituen argitalpenean zehaztutako prozeduraren arabera garatu dira. Hona hemen zein den prozeduraren ondoz ondokoa:

**Taldeak erabilera urratsetan kokatzea**, nerabeen komunikatzeko gaitasunaren eta nerabeek erabilera hartzen duten iniziatibaren arabera.

Erabilera-urratsaren arabera, **interbentzioko eremua hautatzea**.

**Interbentzioko eremuari dagozkion estrategiak zehaztea**; hots, hizkuntzazko estrategiak eta begiralearen taldeko kokapenari dagozkionak.

**Estrategiak garatzeko tresnak aukeratzea**.

**Tresnak baliau ahal izateko bete beharreko baldintzak aintzat hartzea**, edota kontuan izan behar diren hainbat alderdi zaintzea.

**Tresnak aplikatzea**.

Horixe da, beraz, prozedura osoa, eta, txosten honetan, prozedura horretako 4. eta 5. puntuak aurkezten dira. Lehenik eta behin, prozedura azaltzen duen taula dator; hurrena, tresna bakoitza deskribatzen da, kontuan hartu beharrekoak zehazten dira eta adibide batzuk aurkezten dira; azkenik, tresnen aplikazioari dagozkion hainbat ohar ere egiten dira.

HAED PROIEKTUA: EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEKO TRESNAK						
Erabilera urratsa	Interbentzioko eremua	Hezitzailearen kokapena	Hizkuntzako estrategia	Tresna	Motibazioa	Intentsitatea
Erabilera aiseginaren urratsa	Nerabeen eta hezitzailearen arteko harremana	Zentroa da	Produkzio elebakarra	Elkarrizketak baliatzea	Komunikatiboa/Integratzailea	Ertaina
		Partaidea da	Produkzio elebakarra	Tarte informalak baliatzea Gaitasun bereko taldeak osatzea	Komunikatiboa/Integratzailea Komunikatiboa	Ertaina Ertaina
Erabilera zuzenduaren urratsa	Nerabeen eta beste erreferenteen arteko harremana	Zentroa da	Produkzio elebakarra	Jardueraz kanpoko erreferenteak baliatzea	Komunikatiboa/Instrumentala	Ertaina
		Partaidea da	Produkzio elebakarra	Tarte informalak baliatzea Erreferente hurbilak baliatzea	Komunikatiboa/Instrumentala Komunikatiboa/Instrumentala	Ertaina Ertaina
		Zentroa da	Ulermen elebakarra	Ustekabeko erantzunak baliatzea	Komunikatiboa	Ertaina
		Partaidea da	Ulermen elebakarra	Nerabeek laguntzaile aritzea Presentzia fisikoaren bidez eragitea	Integratzailea Komunikatiboa	Ertaina Ertaina
		Partaidea da	Erabilera arautua	Nerabeek erdaraz egitean erreferenteak alde egitea	Instrumentala	Ertaina
Erabilera naturalera hurbiltzeko urratsa	Nerabeek taldekideekin espazioan duten harremana	Partaidea da	Erabilera arautua	Presentzia fisikoaren bidez eragitea	Komunikatiboa	Altua
		Kanpoan dago	Erabilera hitzartua	Nerabeek erdaraz egitean erreferenteak alde egitea	Instrumentala	Altua
		Partaidea da	Erabilera hitzartua	Liderraren laguntza lortzea Ekintza erakargarriak baliatzea	Komunikatiboa/Integratzailea Instrumentala	Ertaina Altua
		Kanpoan dago	Erabilera hitzartua	Tarte informalak baliatzea Nerabeek begiralearen rolean jartzea Erreferente hurbilak baliatzea Ekintza erakargarriak baliatzea	Komunikatiboa Integratzailea Komunikatiboa Instrumentala	Ertaina Altua Altua Altua
		Kanpoan dago	Erabilera hitzartua	Liderraren laguntza lortzea Ekintza erakargarriak baliatzea	Komunikatiboa/Integratzailea Instrumentala	Ertaina Altua
Jardun osoko harremana	Jardun osoko harremana	Kanpoan dago	Erabilera hitzartua	Liderraren laguntza lortzea Sariak baliatzea	Komunikatiboa/Integratzailea Instrumentala	Ertaina Altua



## 2.1 HEZITZAILEAK NERABEEKIN DUEN HARREMANA I

### ERABILERA ATSEGINAREN URRATSA

#### Proposatzen diren tresnak:

Elkarrizketak baliatzea.  
Nerabea laguntzaile aritzea.

#### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

**Interbentzio-eremua:** Hezitzailearen eta nerabeen arteko harremana.  
**Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea taldeko zentroa denean erabili ahal izango dira tresna horiek.  
**Hizkuntzazko estrategia:** Hezitzaileak produkzio elebakarra baliatuko du; hau da, euskaraz mintzatuko da beti, nerabeekin erlazionatzen denean.  
**Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen dira.  
**Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez.

### PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA

#### Elkarrizketak baliatzea:

Erabilera atseginaren urratseko nerabeak euskaraz oso nekez komunikatzen direnez gero eta euskara erabiltzeko inizatibarik hartzen ez dutenez gero, hezitzaileak nerabeekin hariltzen dituen elkarrizketak edo berbaldiak izango dira erabilera lantzeko tresna nagusi. Elkarrizketei bide emateko, jarduerako ekintza edo denbora-bitarte jakinak baliatuko dira, hala nola, jardueraren azalpena egitean edo egindakoa, entzundakoari buruz galderak eginez elkarrizketak sortzea, jarduera garatzean egiten ari direnaz elkarrizketak sortzea eta abar.

Hezitzaileak galdera asko egin behar du. Galderak mailakatuak izango dira, eta, hasiera batean, bai/ez erantzun beharko dute nerabeek. Ondoren, hitz batekin erantzun beharreko galderak egingo dira, eta, progresiboki, erantzunak luzeagoak izango dira.

Nerabe bakoitzaren gaitasuna neurtu behar da, banako bakoitzaren hizkuntza-mailara egokitzeko. Horrela, komunikazio on bat lortuko da, eta taldekideek ez dute euskara ez erabiltzeko aitzakiarik izango. Apurka-apurka aurrerapausoak egiten dituztela konturatzen badira, motibazioa handiagoa izango da.

Taldeko kide bakoitzarekin egoteko tartea aurkitu behar da. Nerabe guztiak berdintzatatu behar dira, eta hezitzaileak disponibilitatea transmititu behar du. Jardueratik kanpo sortzen diren tarreak ere baliatu behar dira nerabeekin erlazionatzeko; eskolan, kalean edo bestelako lekuetan elkartzean, harremana landu behar da.

**Nerabea laguntzaile aritzea:**

Taldekideren bat laguntzaile hartuz gero, erabilera bi modutara lan daiteke nerabearekin: batetik, elkarrekin hitz egiteko aukera handiagoa baliatuz (zertan laguntzea nahi den azaldu, iritzia eskatu...), eta, bestetik, gainerakoei zenbait gauza euskaraz azaltzeko eskatuz (azalpen laburren bat, arau errazen bat...).

Laguntzaileak hezitzaileak aukeratuak edo boluntarioak izan daitezke. Bigarren kasu horretan, bere burua eskaini duen bat izango da, eta haren motibazioa ziurtatua dago. Nolanahi ere, baldin nerabe jakin batekin egin nahi bada lan, hezitzaileak aukeratzea izan daiteke egokiena. Adibidez, oso tresna egokia da, euskaraz oso nekez komunikatzen den nerabeari bidea urratzen laguntzeko. Era berean, oso aproposa da aurrerapauso nabarmenak egin dituen nerabearentzat, motibazioa indartzeko edo ahalegina saritzeko.

**KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

- Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen dira. Hezitzaileak taldekideekin duen harremana baliatzen da bi tresnetan, eta, beraz, nerabeentzat erreferente izan daitekeen hezitzailearekin komunikatzea dago oinarrian. Bestalde, taldean integratzeko elementuak ere lantzen dira: nerabeei protagonista izatea eskatzen zaie tarte batzuetan, nerabe guztiek hartzen dute parte elkarriketetan, etc. Izan ere, motibazio integratzailea ere asko zaindu beharrekoa da.
- Tresna horiek erabili ahal izateko, jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez. Hau da, jarduerarekiko duten lotura ahula bada, zaila izango da hizkuntzazko erabileran egin beharreko ahalegina onartzea, eta jarduera bertan behera utz dezakete. Dena dela, eskatzen zaien ahalegina ez da berebizikoa, zeren hezitzaileak egin behar baitu lan handiena. Horregatik, nahikotzat jotzen da intentsitate ertaina.
- Tresna baliatzean, uneak aurkitu eta sortu behar dira nerabeekin bakarka hitz egiteko. Nerabeei haienganako interesa adierazi behar zaie. Nerabeen interesa pizten duten gaiak ezagutu behar dira. Gehienetan, jarduera bera eta haren inguruko gaiak izango dira interes-iturri axolakoan.
- Taldekideak iritsi ahala, lehenengo harremana hezitzaileak egiten badu —euskaraz, jakina—, nerabeak giro euskaldunean murgilduko dira.
- Nerabeak jardueran estreinatzen direnean, hezitzaileek ez dute kale egin nahi izaten lehenengo harreman horretan, zeren nerabeek jardueran irautea nahi izaten baitute. Kontua horrela, burura dakieke hizkuntza oztopo izan daitekeela, eta, beldurra dela medio, zokora dezakete euskararen erabilera. Ordea, hezitzaileak ezin du sinetsi euskara oztopo izan daitekeela. Nahiz eta oso garrantzitsua den hasiera-hasieratik hezitzailea eta jarduna erakargarri bilakatzea, argi utzi behar zaie hezitzailearekin euskara hutsean erlazionatu behar dutela, horretarako bakoitzaren gaitasuna kontuan hartuko den arren.
- Ardurakoa da nerabeen komunikatzeko gaitasuna hasierako harremanetan ezagutzea. Berbaldi errazak probokatu behar dira lehenik, eta apurka-apurka ahalegin handiagoa

eskatzen dutenak sorrarazi behar dira, nerabe bakoitzak zer «neurri» ematen duen jabetzeko.

➔ Laguntzaileak jartzea oso aproposa izan daiteke erabileran eragiteko. Laguntzailea hizkuntza aldetik ondo moldatzen dena bada, zailtasunak dituztenei lagun diezaieke, hezitzailearen ardurapean. Aldiz, laguntzailea komunikatzeko zailtasunak dituena bada, hezitzaileak balia dezake laguntzaile-figura hori, nerabearekin berbaldi gehiago izateko eta hizkuntzan zuzenean eragiteko.

## UDALEKU ITXIETAKO ETA AUZOLANDEGIETAKO ADIBIDEA

Partaideak talde txikietan bereizita eta talde bakoitzak hezitzaile bat zentro duela, play-back bat prestatuko da. Behin lana burututa, beste taldeen aurrean antzeztuko da. Play-backa prestatzean, kide bakoitzak bere instrumentua egingo du tailerra baliatuta. Nola nerabeek horretarako hezitzailearen laguntza beharko baitute, hezitzailea taldekide bakoitzarekin erlazionatuko da. Harreman horretan, hezitzaileak hizkuntzazko helburuak landuko ditu nerabeekin, elkarriketen bitartez.

Hurrena, emanaldia prestatuko da. Hezitzailea partaide izango da, eta play-backean hartuko du parte. Oso garrantzitsua da nerabeei eskatzen zaiena hezitzaileek ere egitea, zeren era horretan lortzen baita konfiantzazko eta erreferentziazko hezitzaile izaten hastea.

## GAZTELEKUKO ADIBIDEA

Nerabeetako bat, astero, hezitzailearen laguntzaile arituko da, eta nerabe-laguntzaileek harreman handiagoa izango dute hezitzailearekin. Jardueran hasi berriak diren kasuan, haien inplikazioa eta interesa ezagutzeko aukera ere izango du hezitzaileak, jardunbide hori aplikatzen badu.

Hezitzaileak beti izan behar du taldeko zentroa laguntzailearekin diharduenean. Erabilerako urrats horretan, oso zaila izango da helburuak lortzea, modu horretan jokatu ezean.

Honako hauek izan daitezke laguntzaileari proposatzeko moduko lan batzuk:

Erabilera libreko espazioen arduraria izatea.

Gaztelekuaren antolaketan taldekideen ordezkari izatea (ardura-maila eta epeak antolaketaren arabera molda daitezke): material berezia erosten laguntzea, diseinuren bat aukeratzen laguntzea, arauak prestatzen parte hartzea...

Egun jakin bateko ekintza batean laguntzaile aritzea (txapelketan, mahai-jolasean...).

Materiala prestatzen laguntzea: kartelak, diptikoak, jolasak...

## 2.2 HEZITZAILEAK NERABEEKIN DUEN HARREMANA II

### ERABILERA ATSEGINAREN URRATSA

#### Proposatzen diren tresnak:

- Informaltasuna baliatzea.
- Gaitasun bereko taldeak osatzea.

#### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

- **Interbentzio-eremua:** Hezitzailearen eta nerabeen arteko harremana.
- **Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea taldeko partaide denean erabili ahalko dira tresna horiek.
- **Hizkuntzazko estrategia:** Hezitzaileak produkzio elebakarra baliatuko du; hau da, euskaraz hitz egingo du beti nerabeekin erlazionatzean.
- **Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen dira.
- **Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez.

### PROPOSATZEN DIREN TRESNEN AZALPENA

#### Informaltasuna baliatzea:

Oso eragingarria da egoera informalak baliatzea, nerabeak euskara erabiltzera bultzatzeko. Espazio informaletan, parte-hartzaileekin erlazionatzeko ahalegina egin behar du hezitzaileak. Horretarako, jarduera guztiek izan ohi dituzten espazio edo denborabitarte informalak baliatu behar dira, eta, beharrezko jotzen bada, sortu ere egin daitezke. Egoera informaletan, partaide guztiekin erlazionatzeko ahalegina egin behar da, eta, erlazioan, euskararen erabilera sustatu behar da elkarrizketen bidez.

Egoera informaletan nerabeekin erlazionatzea ez da soilik euskararen erabilera sustatzeko bide moduan hartu behar. Era horretako erlazioaren bidez, nerabeekiko interesa agertzen du hezitzaileak eta nerabeentzat erreferente moduan izan dezakeen izaera garatzen du. Erreferentziazko izaera garatuz, aiseago sustatuko da euskararen erabilera.

#### Gaitasun bereko taldeak osatzea:

Hainbat jardueratan, komunikatzeko gaitasun ezberdineko kideak bilduko dira talde berean. Talde osotik talde txikiagoak osatu behar direnean (ekintza jakin baterako, adibidez) egokia izan daiteke gaitasun bera duten kideak elkarrekin jartzea. Talde horietan, komunikatzeko gaitasunaren arabera landu ahal izango da erabilera, taldekideen arteko komunikazioa errazteko eta motibazioan eragiteko.

Nahiz eta egokia den taldeak osatzean gaitasuna kontuan hartzea, ez da etengabe balia daitekeen tresna. Taldeak beti hezitzaileak egitea arriskutsua izan daiteke, zeren nerabeek gustuko izaten baitute beren erara antolatzea. Beraz, oreka aurkitzen ahalegindu beharko da beti.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen dira. Egoera informalen bitartez, hezitzailearen erreferentziazko izaera baliatu nahi da erabilera sustatzeko; hau da, motibazio komunikatiboa da oinarri. Gaitasunaren arabera-ko taldeak osatzean, berriz, taldeko integrazioa hartzen da abiapuntutzat. Hots, supozizioa da nerabeak aiseago mintzatuko direla euskaraz komunikatzeko gaitasun bereko taldekideekin eta, horrenbestez, euskaraz hitz eginez lortuko dutela taldeko partaide izatea.
- Tresna horiek erabili ahal izateko, jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez. Hau da, jarduerarekiko duten lotura ahula bada, zaila izango da hizkuntzazko erabileran egin beharreko ahalegina onartzea, eta jarduera bertan behera utz dezakete. Dena dela, eskatzen zaien ahalegina ez da berebizikoa, zeren hezitzaileak egin behar baitu lan handiena. Horregatik, nahikotzat jotzen da intentsitate ertaina.
- Hezitzaileak nerabeekin duen harremana ezin da mugatu jarduerako ekintza arautetara; hezitzaileak informalki ere erlazionatu behar du parte-hartzaileekin. Jarduera orok berez izaten ditu espazio edo denbora-bitarte informalak, eta hezitzaileak baliatu egin behar ditu nerabe guztiekin erlazionatzeko.
- Jarduerako lehenengo egunek garrantzi handia dute. Hezitzaileak hasieratik lortzen badu taldean integratzea, aurrerapauso handia egingo du. Horretarako, oso onuragarria da izenak bizkor ikastea eta erabiltzea, denei denbora apur bat eskaintzea, bakoitzari buruz zerbait jakitea...
- Komunikatzeko gaitasunaren arabera-ko taldeak planteatzen direnean, garrantzitsua da ahalik eta modu naturalenean egitea. Ez da komeni gehiegi behartzea, zeren nerabeek beren burua eroso ikusi behar baitute taldean.

## KIROL-JARDUERAKO ADIBIDEA

Kirolerako orduetan, garrantzitsua izango da nerabeekin ohartuki konparti daitekeen informaltasuna. Hezitzailearen interesak jardueratik kanpo ere badirauela transmititu behar da. Nola pertsonak ari baitira parte hartzen, nerabeekiko interesa landu behar da harreman informaleko erlazioan. Nahita sortutako elkarrizketetan eta bestelakoetan, gaia jarduerarekin zerikusia duena izango da batzuetan, baina, beste askotan, jarduerarekin zerikusirik ez duena: nerabeen ikasketak, nahiak, arazoak... izan daitezke mintzagai. Ildo horretan, hona hemen har daitezkeen zenbait iniziatiba:

Jarduna gauzatzen den espaziora ordua baino lehen agertzea eta jendea tarte horietan elkarrekin egotera ohitzea.  
Aldageletako giroan parte hartzea, bai entrenamenduetan, bai partidako garaian.

## ANTZERKIRAKO ADIBIDEA

Talde txikietan, hezitzailea parte dela, esketx bat prestatuko da. Taldeak hizkuntza-mailaren arabera osatuko dira, euskaraz aritzeko konfiantza har dezaten. Taldeak ondoko lan hauek egingo ditu, hezitzailearen laguntzarekin:

Talde txikian, gidoia prestatu eta landu.  
Ondoren, beste guztien aurrean antzeztu.

### 2.3 NERABEEN ETA BESTE ERREFERENTEEN ARTEKO HARREMANA I

#### ERABILERA ATSEGINAREN URRATSA

##### Proposatzen den tresna:

Jardueraz kanpoko erreferenteak baliatzea.

##### Tresna jakin hori erabiltzeko irizpideak:

**Interbentzio-eremua:** Nerabeen eta beste erreferenteen arteko harremana.

**Hezitzailearen taldeko kokapena:** Erreferenteak taldearen zentroa direnean erabili ahalko da tresna hori.

**Hizkuntzazko estrategia:** Erreferenteek eta hezitzaileak produkzio elebakarra baliatuko dute; hau da, euskaraz mintzatuko dira beti, nerabeekin erlazionatzen direnean.

**Motibazioak:** Tresna hori motibazio komunikatiboan eta instrumentalean oinarritzen da.

**Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez.

#### PROPOSATU DEN TRESNAREN AZALPENA

##### Jardueraz kanpoko erreferenteak baliatzea:

*Hezitzaileek asko egin dezakete* egitasmoaren ikuspegitik, hezitzaileak izan behar du jarduerako nerabeen erreferente nagusia. Hala ere, hizkuntzazko helburuak lantzeko garaian, oso interesgarria izan daiteke jarduerarekin zerikusia duten beste erreferente batzuen laguntza: kirolari ezagunak kiroleko jardueren kasuan, tailer bereziak lantzeko irakasleak gaztelekuen kasuan; antzezle ezagunak, musikariak, herriko pertsona ezagunak... antzerki-tailerretan, etc.

Erabilera atseginaren urrats horretan, erreferente horiek oso aproposak izan daitezke hezitzaileak egiten duen lana indartzeko. Izan ere, taldekideak euskaraz oso nekez komunikatzen direnez gero edota euskara erabiltzeko inizatibarik ez dutenez gero, erreferenteak taldekideekin elkarrizketatuko dira jardunean zehar. Horretarako, jarduerak eskaintzen dituen aukerak baliatu behar dira: jardueraren azalpenari buruzko galderak eginez, jardueran egiten ari direnaz mintzatuz... sorraraz daitezke elkarrizketak edo berbaldiak.

Erreferente diharduenak oso argi izan behar ditu hizkuntzazko helburuak. Hezitzailearen gisan, galdera asko egin behar du, eta, hezitzailearen laguntzarekin, galderak nerabeen komunikatzeko gaitasunera egokituak izatea lortu behar du, komunikazio on bat erdiesteko eta taldekideak euskaraz aritzera bultzatzeko.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Tresna hori motibazio komunikatiboan eta instrumentalean oinarritzen da. Nerabeen kasuan, motibazio indartsua da berentzat erreferente diren pertsonekin komunikatzea, eta komunikazio-behar hori erabili behar da euskara sustatzeko. Erreferente bereziak baliatuz, bestalde, jarduerarekiko motibazio instrumentala ere lantzen da, baldin ekintza berezi moduan proposatzen bada, zeren jardueraren beraren erakargarritasuna indartzen baitu.
- Tresna hori erabili ahal izateko, aski da jardueraren intentsitatea ertaina izatea. Berez, euskaraz komunikatzeko ahalegina egiteko eskatzen zaie nerabeei, baina nola ahalegina berentzat erakargarria den pertsona baten bidez gauzatzen baita eta nola komunikazioko ahalegin handiena pertsona horrek eta hezitzaileak egiten baitute, ez du intentsitate handiegirik eskatzen.
- Nerabeentzat erreferente erakargarriak zein diren jakiteko, beren intereseko gaiak zein diren jakin behar da. Kirolaren eta antzerkiaren kasuan, jardueraren inguruko gaietan aurkituko dira erreferente interesgarriak. Gaztelekuen eta udalekuen kasuan, posible da ikuspegi irekiagoa aplikatzea, zeren jarduerak berak oso gai ezberdinak lantzeko aukera ematen baitu. Batzuetan, gainera, gaiak izango dira erreferentea bilatzeko bide. Adibidez, DJ kontuak gustatzen bazaizkie, DJ bat eraman daiteke jarduerara, nahiz eta berentzat ezezaguna izan, jarduera jakinetako pertsona ezagunak alde batera utzita.
- Taldekideak iritsi ahala, lehenengo harremana hezitzaileak egiten badu —euskaraz, jakina—, giro euskaldunean murgilduko dira.
- Erreferenteak ohartuki jabetu behar du hizkuntzazko helburuez, jardueran parte hartu aurretik. Bestalde, hezitzailearen laguntza izan behar du helburuak lantzean.
- Erreferenteak bere gaiarekin erlazioa duten erreferentziak euskara hutsean (inoiz ez erdaraz) eman behar dizkie nerabeei. Adibidez, web-orrien helbideak, aldizkariak eta abarrak. Jarduera euskaraz gauza daitekeela transmititu behar zaie nerabeei.
- Erreferenteak produkzio elebakarra baliatu behar du, eta, ahal izatera, ulermen elebakarra baliatzea ere egokia litzateke. Erreferenteak gaztelaniaz eta ingelesez ez badaki, taldekideek euskaraz adierazteko ahalegina egingo dute, eta komunikazio guztia euskaraz izatea lortuko da. Gorabehera hori, posible da, adibidez, erreferentea Ipar Euskal Herrikoa bada. Hego Euskal Herrikoa izanez gero, oso zaila da ulermen elebakarra baliatzea, oso prestatua ez dagoenari oso zaila egiten baitaio ez adituarena egitea.



## KIROL-JARDUERAKO ADIBIDEA

Pertsona ezagunen bisitak antolatuko dira. Kirol-munduan ezagunak diren pertsonak izango dira: herriko taldeetakoak edo talde profesionaletakoak. Beren esperientzia azaltzea interesgarria den arren, taldekideekin erlazionatzea eta elkarrekin solasean aritzea da helburua. Horregatik, horretara bideratuko da jarduna:

Pertsona ospetsuak bere esperientziaren azalpen bat egiten badu, taldekideekin solasean aritzeko adina galdera egingo ditu, eta hezitzaileak lagunduko dio horretan. Nerabeek ere hainbat galdera presta ditzakete aurretik.

Kirol-jardueran bertan ere har dezakete parte, eta jarduera aprobetxatu solastatzeko. Entrenamendu bat zuzentzea, entrenamendu barruko partidan parte hartzea... izan daitezke bideak.

Bisita puntuala izan daitekeen arren, oso interesgarria da harremana mantentzea:

Pertsona berak bisita gehiago eginez.  
Chataren edo e-mailaren bidez harremana mantenduz.

## ANTZERKIRAKO ADIBIDEA

Eskola orduz kanpo, hezitzailea antzerkia ikustera joango da taldearekin batera. Hori egitea zaila bada, antzerkirako sarrerak banatuko zaizkie. Behin emanaldia igarota, antzerkiko antzezle bat gonbidatuko da taldearen saiora, eta, hura bere antzezlanari buruz aritzeaz gain, nerabeek ariketa batzuk egingo dituzte haren antzezlanean oinarrituta.

### 2.4 NERABEEN ETA BESTE ERREFERENTEEN ARTEKO HARREMANA II

#### ERABILERA ATSEGINAREN URRATSA

##### Proposatzen diren tresnak:

Informaltasuna baliatzea.  
Erreferente hurbilak baliatzea.

##### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

**Interbentzio-eremua:** Nerabeen eta beste erreferenteen arteko harremana.

**Hezitzailearen taldeko kokapena:** Erreferenteak taldeko parte direnean erabili ahal izango dira tresna horiek.

**Hizkuntzako estrategia:** Erreferenteek eta hezitzaileak produkzio elebakarra erabiliko dute; hau da, euskaraz hitz egingo dute beti nerabeekin erlazion atzean.

**Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta instrumentalean



oinarritzen dira.

- **Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez.

## PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA

### **Informaltasuna baliatzea:**

Oso interesgarria da jardueraz kanpoko erreferenteak jardueran parte hartzera gonbidatzea eta bide horretatik hizkuntzazko helburuetan inplikatzeko. Aurreko puntuan azaldu bezala, horrelako erreferenteek oso argi izan behar dituzte hizkuntzazko helburuak, eta, hezitzailearen laguntzarekin, berbaldiak sortu behar dituzte nerabeekin. Nerabeekin elkarrizketak sortzeko, jarduerak eskaintzen dituen baliabideak baliatu behar dira batik bat: erreferenteak bere esperientzia azaltzea, jardueraren zati bat berak zuzentzea eta abar.

Horretaz gain, erreferenteak nerabeekin harreman informalak lantzea ere oso interesgarria da. Jarduera guztiek dituzte espazio edo denbora-bitarte informalak. Erreferenteak aukera horien berri izan behar du eta horietan nola lan egin azaldu behar zaio: nerabeenganako interesa azaldu behar du, elkarrizketak sortu behar ditu, elkarrizketetan erabilera-urrats jakinari dagozkion hizkuntzazko helburuak hartu behar ditu kontuan eta abar.

Horrelako harremana oso motibagarria izan daiteke nerabeentzat, eta hizkuntzazko erabileran eragin oso positiboa izan dezake.

### **Erreferente hurbilak baliatzea:**

Jardueraz kanpoko erreferenteak balia daitezkeen arren, jardunetik gertu dauden erreferenteak ere balia daitezke. Esate baterako, jarduera bera egiten duten baina helduagoak diren beste talde bateko gazteak balia daitezke erreferente moduan.

Sarritan, helduagoak diren eta jarduera bera egiten duten gazteak oso erreferente erakargarriak dira. Horregatik, haiek hizkuntzazko helburuak argi badituzte, jardunean inplika daitezke eta erabilera sustatzeko tresna bihurtu, dela jarduera arautuetara gonbidatuz eta han elkarrizketak sustatzeko bidea emanez, dela tarte informaletan harremanak sustatuz, dela beste era batzuk baliatuz.

Ziurtatu egin behar da erreferente horien koherentzia linguistikoa, eta helburua argi transmititu behar zaie. Erabilera urrats honetan, nerabeek ez dute erabileran iniziatibarik hartzen, baina, jokamolde horri begira, hurbileko erreferenteak erabiltzeak eragin handia izan dezake. Iniziatiba hartzeari begira, oso interesgarria izan daiteke gazte helduagoen erreferentzia, zeren nerabeak iniziatiba hartzera motiba baitituzke.

Hezitzaileak, noski, erreferenteekin harremanetan egon behar du, eta jarraipena egin behar die. Behar den kasuetan, gainera, baliabideak eskaini beharko dizkie, helburuak lortzeari begira: nola lagundu nerabeei berarekin erraz komunikatzen, zailtasunen aurrean nola jokatu eta abar azaldu beharko dizkie.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta instrumentalean oinarritzen dira. Nerabeentzat motibazio indartsua da erreferente diren pertsonekin komunikatzea, eta komunikazio behar hori baliatu behar da euskara sustatzeko. Erreferente bereziak baliatuz, bestalde, jarduerarekiko motibazio instrumentala ere lantzen da, baldin ekintza berezi moduan proposatzen bada, zeren jardueraren beraren erakargarritasuna indartzen baitu.
- Tresna horiek baliatzeko, jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez. Nerabeei eskatzen zaien ahalegina ez da oso handia, eta, beraz, jardueraren intentsitateak ez du zertan handia izan. Hala ere, urrats horretan, taldekideek erabilera iniziatiba hartzea lortu nahi da hurrengo erabilera-urratsera igarotzeko. Dagoeneko alderdi horri begira lorpenak izan badira ere, erreferenteen bidez jardueraren intentsitatea handitzea lortzen bada, nerabeek hezitzailearekin eta erreferenteekin euskaraz aritzeko iniziatiba hartzea finkatzea lortuko da.
- Erreferente izan daitekeen norbait jarduera batean parte hartzera gonbidatzen bada, oso garrantzitsua da taldean modu egokian integratzea. Tarte informaletan nerabeekin erlazionatzeko, erreferenteak eta nerabeek eroso egon behar dute. Beraz, oso erakargarria izan daitekeen erreferente bat baino egokiagoa izan daiteke hurbileko erreferente bat edo nerabeekin erraz eta ondo komunikatuko den erreferente bat, nahiz eta hasiera batean ez izan horren erreferente erakargarriak.
- Argi izan behar dugu erabiltzen ditugun erreferenteak egokiak direla. Hau da, nerabeen gustukoak izan behar dute (oso ezagunak, gai erakargarri batekin zerikusia dutenak...), baina hizkuntzari dagokionez ere koherenteak izan behar dute.
- Erreferenteak oso argi izan behar du parte hartuko duen taldeko hizkuntzazko helburuak zein diren.
- Erreferente oso ezagunak jarduerara ekartzea ez da erraza izango askotan, baina hurbileko erreferente ugari izaten da gertu. Askotan, ez da horrelako erreferenteetan erreparatzen.
- Jarduerarekiko lotura mantentzeko erreferenteak aurkitzea komeni da; hots, behin bakarrik parte hartu beharrean hainbatetan arituko den norbait aurkitu behar da. Modu horretan, eragina handiagoa izango da eta aurrerapausoak finkatzen lagunduko du.

## KIROL-JARDUERAKO ADIBIDEA

Kirolean, hurbileko erreferente oso interesgarriak dira goragoko mailetan jokatzeko duten nerabeak. Nerabeentzat eredu oso erakargarriak dira. Erreferente horietako batzuk kirol jarduerara ekar daitezke, entrenamendu batzuetan eta entrenamendu barruko partida batzuetan parte hartzera. Nerabeek erreferenteekin nahasi behar dira horrelako partidetan, eta erreferenteekin harremanetan jartzeko aukera eman behar zaie. Bestalde, entrenamenduko beste ataletan ere

parte har dezakete; hala nola, beroketak zuzentzen eta elkarrizketak sortzen, luzaketetan eta abarretan.

## II-3 ERABILERA ZUZENDUAREN URRATSEKO TRESNAK

### 3.1 NERABEEK HEZITZAILEAREKIN ETA BESTE ERREFERENTEKIN DUTEN HARREMANA I

#### ERABILERA ZUZENDUAREN URRATSA

##### Proposatzen diren tresnak:

Ustekabeko erantzunak baliatzea.  
Nerabea laguntzaile aritzea.

##### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

**Interbentzio-eremua:** Nerabeek hezitzailearekin eta beste erreferenteekin duten harremana.

**Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea edota erreferentea taldearen zentroa direnean erabili ahal izango dira tresna horiek.

**Hizkuntzazko estrategia:** Hezitzaileak edota erreferenteek ulermen elebakarra baliatuko dute. Hau da, nerabeekin duten harremanean euskaraz hitz egingo dute beti, eta, gainera, nerabeek erdaraz egiten badiete ez adituarena egingo dute.

**Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen dira.

**Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez.

#### PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA

##### Ustekabeko erantzunak baliatzea:

Erabilera zuzenduaren urratsean, erdietsia izan behar da nerabeek berek hartzea euskaraz mintzatzeko inizatiba, hezitzailearekin eta erreferenteekin erlazionatu behar dutenean.

Hala ere, urrats horren lehenengo fasean, gerta liteke taldekideek noizbehinka hezitzaileari erdaraz hitz egitea. Horrela agitzen denean, hezitzaileak ez adituarena egin dezake eta nerabeek inola ere espero ez dituzten erantzunak balia ditzake. Adibidez,

Beste hizkuntza batean erantzun dezake.

Galderarekin zerikusirik ez duen zerbait esan dezake.

Erantzunik eman gabe gera daiteke, eta begiradarekin adieraz dezake ez duela ulertu edo ez duela ulertu nahi.

Kilimak egin ahal dizkie partaideei eta berriro galdetzeko eskatu, galdera ez duela onartzen jolas bidez adieraziz.

### Nerabeak laguntzaile aritzea:

Erabilera zuzenduaren urratsean aurrera egiteko, egokia da nerabeak hezitzailearen laguntzaile aritzea. Hezitzaileak nerabeekin elkarrizketa gehiago izango ditu, eta, beraz, erabilera indartuko du. Nerabeei, bestalde, hainbat azalpen edo arau taldeari azaltzeko eskatuko die, eta euskaraz egin beharko dute hezitzailearen laguntzaz. Beraz, oso egoera formaletan bada ere, nerabea beste taldekideekin euskaraz komunikatzen hasiko da.

Laguntzaileak boluntarioak izan daitezke edota hezitzaileak aukeratuak. Fase horretan, aztertzen hasi behar da taldeko liderrarekin edo lider linguistikoarekin lanean hasteko unea den. Txosten honetan aurrerago azaltzen den bezala (2.5.1 puntuan), une batean taldeko liderrekin edo lider linguistikoekin hasi behar da lanean, erabilera naturalera hurbiltzeko urratsera pasatu ahal izateko, eta, kasu batzuetan, oraingo fase hau izan daiteke horretan hasteko egokia.

### KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen dira batez ere. Batetik, ustekabeko erantzunen tresna baliatzean, indar handia jartzen da hezitzailearekin komunikatzeko beharrean. Bestetik, laguntzaile moduan aritzean, protagonismo bat ematen zaio nerabeari, eta taldean betetzen duen lekua indartzen da, motibazio integratzailean eraginez.
- Tresna horiek baliatzeko, jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez. Nerabeek ez dute gehiegizko ahaleginik egin behar eskatzen zaiena betetzeko, eta, gainera, hezitzaileak eta erreferenteak dira ahalegina bideratzen dutenak.
- Nerabeek erdaraz egiteko ohitura badute, normala da automatikoki erdarara jotzea. Beraz, urrats honetan hezitzaileei hitz egitean gehienetan euskaraz egiten badute ere, ez da harrizkeoa tartean behin erdaraz hastea. Ohiturak finkatzeko, baliagarria da espero ez den modura jokatzea, ohiko mezuak alde batera utzita (egin euskaraz, jar-duera hau euskaraz da...).
- Erdararako joera dagoenean, oso garrantzitsua da tentsiorik ez sortzea. Erantzuteko modu alternatibo horiek nerabea erdaraz ari dela konturaztea dute helburu, baina modu dibertigarrian ohartarazten da. Gehienetan, nerabea ez da jabetzen zein hizkuntzatan ari den, eta hezitzaileak beste espresio-modu batzuetan komunikatzea lortu behar du erdarara lerratu gabe. Beraz, tresna hori ezin da etengabe eta edozein modutan erabili. Ia etengabe erabili behar bada, eragingarritasuna galtzen du, tentsioak sor ditzake, eta, batez ere, taldea urrats honetara ez dela iritsi adierazten du, eta, ondorioz, tresna hori erabiltzea ez dela egokia.
- Ustekabeko erantzunak baliatzeko, hezitzaileak beti egon behar du jardueraren zentroan, edota jardueraren parte izan behar du gutxienez. Egoera horietan sortzen diren elkarrizketetan, hizkuntzazko helburuak landu behar dira, eta xedea da nerabeek hezitzaileari hitz egitean euskaraz aritzeko inizatiba hartzea automatizatzea.
- Oso zaila da ulermen elebakarra etengabe erabiltzea, baita hezitzailea jardueraren

zentroa denean soilik erabili nahi bada ere. Hezitzaileak ulertzen du nerabeek esandakoa, baina ez adituarena egin behar du eta berriz esateko eskatu.

### ANTZERKIKO ADIBIDEA

Nerabeak hezitzaileari erdaraz hitz egiten badio, hezitzaileak berak asmatutako hizkuntza batean erantzungo dio. Helburua hizkuntza-aldaketa modu atseginean eta dibertigarrian egitea izango da batetik, eta, bestetik, nerabea hezitzaileari euskaraz hitz egin behar diola ohartaraztea.

Nerabea berehala ohartzen bada eta euskaraz egiten badio, hezitzaileak erantzun egingo dio, eta azpimarratu egingo dio erruz eskertzen diola euskaraz esatea eta, gainera, aurrerapauso on bat dela.

Nerabea ez bada ohartzen edo euskaraz egin nahi ez badio, hezitzaileak helburua gogoratuko dio; alegia, berari euskaraz hitz egitea nahi duela esango dio, eta horregatik erabiltzen duela teknika hori. Bestalde, gauzak azaltzeko zailtasunak baditu, laguntza eskainiko dio.

### KIROL-JARDUERAKO ADIBIDEA

Ezaguna den erreferente bat gonbidatuko da jardueran parte hartzera.

Benetan ulermen elebakarra balia dezakeen norbait bada, hobe (Iparraldeko norbait Hegoaldeko jarduera batean, adibidez).

Horrela ez bada, jardueraren hasieran erreferenteak berari euskaraz hitz egitea nahi duela eskatuko die taldekideei; erruz eskertuko liekeela horrela egitea.

Entrenamenduan, hainbat azalpen emango ditu eta hainbat elkarriketa izango ditu taldekideekin. Noizbehinka erdaraz hitz egiten badiote, euskaraz egiteko eskatuko die ez adituarena eginez.

Gainera, laguntzaile bat hartzeko aukera ere badu, azalpenekin eta ariketekin lagunduko diona. Laguntzaileak, nola erreferentearekin komunikatzeko ahalegin handiagoa egin beharko baitu, gehiagotan hartu beharko du iniziatiba.

## 3.2 NERABEEK HEZITZAILEAREKIN ETA BESTE ERREFERENTEKIN DUTEN HARREMANA II

### ERABILERA ZUZENDUAREN URRATSA

#### Proposatzen diren tresnak:

Presentzia fisikoaren bidez eragitea.

Nerabeek erdaraz egitean erreferenteak alde egitea.

**Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:**

- **Interbentzio-eremua:** Nerabeek hezitzailearekin eta beste erreferenteekin duten harremana.
- **Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea edota erreferenteak taldeko parte direnean erabili ahal izango dira tresna horiek.
- **Hizkuntzazko estrategia:** Hezitzaileak edota erreferenteek ulermen elebakarra baliatuko dute. Hau da, nerabeekin duten harremanean euskaraz mintzatuko dira beti, eta, gainera, nerabeek erdaraz egiten badiete, ez adituarena egingo dute.
- **Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta instrumentalean oinarritzen dira.
- **Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez.

**PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA:****Presentzia fisikoaren bidez eragitea:**

Erabilera zuzenduaren urratsean, taldearen hizkuntza-erabileran eragiteko hezitzailearen presentzia fisikoa nahikoa izatea lortu behar da. Helburu horretara iristeko, askoz lehenago urratu behar da bidea: erabilera atseginaren urratsean bertan, zehazki.

Nerabeak hezitzaileari euskaraz hitz egiteko inizatiba hartzea lortu bada; hezitzaileak elkarrizketetan parte hartu gabe ere hizkuntzaren erabileran eragitea lortu behar da; alegia, taldeko partaide izate hutsarekin eragitea lortu behar da.

Erabilera atseginaren urratsean eta erabilera zuzenduaren urratseko lehenengo fasean, hezitzaileak *begirale berritsu* moduan jokatu behar du euskararen erabilera lantzeko: galdetuz, proposatuz, erantzunak eskatuz, ez ulertuarena eginez... jokatu behar du. Behin eta berriz zirikatatu behar ditu nerabeak, euskara erabil dezaten.

Progresiboki, nerabeek euskara jokamolde hori baliatu gabe erabiltzea lortuko da. Noski, ez da berehala erdietsiko beren arteko harremanean euskaraz egitea; lehenik eta behin, hezitzailea tartean denean euskaraz egitea lortu behar da.

Hezitzailea, horretarako, jardueran erdaraz ari diren taldeetara hurbilduko da, eta taldeetan sartuko da edozein aitzakiarekin (zerbait azaldu behar duela esanez, galderaren bat eginez, zertan ari diren galdetuz...). Era horretan, *begirale berritsu* moduan jokatuz (galdetu, erantzunak eskatu...), taldekideek euskaraz egitea lortu behar du. Taldetik urruntzen denean oso normala izango da taldekideak erdaraz mintzatzen jarraitzea, baina, behin eta berriz horrela jokatuz gero, lor daiteke hezitzailea taldera hurbiltzen denean nerabeak euskaraz aritzea, zeren horrela eskatuko baitie haren presentzia fisiko hutsak.

**Nerabeek erdaraz egitean erreferenteak alde egitea:**

Erreferenteak erabiltzeak hizkuntzari buruzko kondizioak jartzeko aukera ematen du, zeren nerabeentzat erakargarri diren pertsonak baitira. Erreferenteak helburua argi

badu eta nerabeei hizkuntzaren aldetik jokatzeko modua argi utzi bazaie, baliabide oso aproposa izan daiteke erabilera sustatzeko.

Erabilera-urrats honetako fase honetan, erreferentearekin euskaraz hitz egiteko eskatuko zaie nerabeei, bai erreferentearen galderei erantzutean, bai beren inizatibaz dihardutenean. Nerabeek baldintzak betetzen ez badituzte, erreferenteak bertan behera utz dezake jarduera. Dena dela, hezitzailearen ardura izango da erabakitzea, eta ondo baloratu beharko ditu, besteak beste, honako alderdi hauek: helburua lortzeko nerabeei zenbaterainoko ahalegina eskatu zitzaien, erabakiak zer ondorio izan ditzakeen eta zenbaterainoko malgutasunarekin joka daitekeen.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Presentzia fisikoaren bidez eragiteko tresna motibazio komunikatiboan oinarritzen da, eta erreferenteak jarduera uzteko aukera motibazio instrumentalean. Lehenengo kasuan, hezitzaileak nerabeekin duen harremana dago oinarrian, eta, bigarreanean, erreferenteak jarduera erakargarriago egiteko ematen duen aukera.
- Tresna horiek baliatzeko, jardueraren intentsitateak ertaina izan behar du gutxienez. Hezitzaileak presentzia fisikoaren bidez eragitea lortzea oso tresna progresiboa denez gero, nerabeei ez die ahalegin handiegirik eskatzen. Ordea, nerabeek erdaraz egiten dutelako erreferenteak jarduera uzteak intentsitate altua eska dezake hainbat kasutan. Taldekideek erraz lor badezakete proposatzen zaien helburua, nahikoa izango da intentsitate ertaina. Helburua iristen zaila bada, berriz, intentsitate altua izango da eskakizun, baina intentsitate altua erreferenteak berak emango du, nerabeentzat aski erakargarria bada.
- Hezitzaileak presentzia fisikoaren bidez eragitea erabilera zuzenduaren urratsean kokatzen da, baina berezko erabileraren urratsetik gertu dago. Hau da, hezitzailearen presentzia fisiko hutsarekin taldekideek euskaraz egiteko ohitura hartzen badute, erraza izango da hezitzailearen presentzia gabe ere euskaraz egiteko bidean jartzea.
- Eragina progresiboa izango da: nerabeek, lehenbizi, hezitzaileak ahalegindutakoan soilik egingo dute euskaraz; hurrena, presentzia hutsarekin edo ahalegin txiki batekin lortuko da; aurrerago, begiradekin jokatuz ere lor daiteke, etab. Nolanahi ere, nerabeak gero eta kontzienteago izango dira erabiltzen duten hizkuntzaz, eta, urrats honetan, beren artean euskara erabiltzeko kontzienteki aritu beharko badute ere eta horretan hezitzaileak lagunduko badie ere, poliki-poliki ohiturak automatizatzea lortuko da.
- Erreferenteak taldea uzteko aukerari dagokionez, taldekideek erreferenteak izango duen jokaeraren berri izan behar dute: hizkuntzarekiko zer jarrera duen azaldu behar zaie.
- Era berean, azaldu behar zaie erreferenteak jardueran parte hartzea erabaki duela, hain zuzen, euskaraz egiten dutelako eta horretan izugarrizko indarra jartzen ari direlako. Nerabeek erreferenteari erdaraz egiten badiote, hark jarduna bertan behera utziko duela adierazi behar zaie. Hala bada, hezitzailearen lana izango da gertatutakoaren inguruko gogoeta egitea.



- Oso garrantzitsua da nerabeei eskatzen zaien ahalegina lorkizuna izatea. Horrela ez bada, erreferenteak utzi egin beharko du jarduera, eta egitate horrek eragin negatiboa izan dezake nerabeengan.

### KIROL-JARDUERAKO ADIBIDEA

Saskibaloiko partida bat jokatu da entrenamenduan. Hezitzaileak rol berezi bat hartuko du: epaile, animatzaile... izango da. Modu horretan, ekintzaren parte izango da, baina rol horrek hainbat eratan aritzeko aukera emango dio: elkarriketak sortuz eragingo du; taldetxoetan sartuta, begiraden bidez eragiten saiatuko da, etc. Taldea erabilera zuzenduaren urratseko fase horretan baldin badago, gero eta errazago gertatuko zaio presentzia fisiko hutsarekin eragitea.

### GAZTELEKUKO ADIBIDEA

Graffiti-tailer bat antolatu da, eta Euskal Herriko graffitigile ezagunenak saio bat emango du. Azalpenak emateaz gain, tailerrean parte hartuko du nerabeekin batera. Hainbat elkarriketa sortuko ditu tailerrean, eta hezitzailearen laguntza izango du horretarako.

Nerabeek erdaraz egiten badiote behin eta berriz, utziko egingo du jarduera.

Hezitzaileak adostua ez bete izana aztertuko du nerabeekin, eta ondorioa baloratu dute. Graffiti-tailerra izatean, nola hasitako graffiti amaitu gabe geratuko baita, modu grafikoan irudikatuta geratuko da ondorioa.

## 3.3 NERABEEK TALDEKIDEEKIN ESPAZIOAN DUTEN HARREMANA I

### ERABILERA ZUZENDUAREN URRATSA

#### Proposatzen diren tresnak:

- Presentzia fisikoaren bidez eragitea.
- Nerabeek erdaraz egitean erreferenteak alde egitea.

#### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

- Interbentzio-eremua:** Nerabeek taldekideekin espazioan duten harremana.
- Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea taldeko partaide denean edo zentro denean erabili ahalko dira tresna horiek.
- Hizkuntzazko estrategia:** Erabilera arautua erabiliko da; hots, euskararen erabilera arautua izango da aktibitatearen espazio batzuetan.
- Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan eta instrumentala oinarritzen dira.
- Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak altua izan behar du.



## PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA

### **Presentzia fisikoaren bidez eragitea:**

Erabilera zuzenduaren urratsean, tresna hori erabiltzea proposatzen den bigarren aldia da, eta, bigarren hau, lehena garatzera dator.

Erabilera zuzenduaren urratseko lehenengo interbentzio-eremuan, nerabeek hezitzailearekin duten harremana hartzen da oinarri, eta, beraz, hezitzailearen esku dago tresna lantzea eta behar bezala erabiltzea.

Bigarren kasu honetan, nerabeek taldekideekin espazioan duten harremana da interbentzio-eremua, eta, erabilera hainbat espaziotan arautua izango denez gero, nerabeak ere erabileraren arduradun izango dira, hezitzailearekin batera. Beraz, nerabeek jakingo dute espazio batzuetan euskara erabiltzea arautua dagoela eta jarduerak horrela eskatzen duela. Nola beren joera erdaraz aritzekoa izango baita, ez da harritzekoa izango espazio izendatueta ere erdarara jotzea.

Hezitzaileak adi egon behar du nerabeek espazio izendatueta zein hizkuntza erabiltzen duten jakiteko, eta, erdarara lerratzen direnean, taldera hurbildu behar du. Inguratzen denean, hizkuntzaz aldatzeko ahalegina egingo du elkarriketetan sartuz. Alabaina, egoera behin eta berriz errepikatzen dela ohartzen bada, espazio arautua dela gogoraraziko die.

Nerabeek erdararako joera hartu arren, denborak aurrera egin ahala hezitzailearen presentzia nahikoa izango da espazio horietan beren artean euskaraz egiteko.

### **Nerabeek erdaraz egitean erreferenteak jarduera uztea:**

Tresna hori ere bigarren aldiz proposatzen da, erabilera zuzenduaren urrats honetan. Lehenengo kasuan, nerabeei erreferentearekin euskaraz egiteko eskatzen zitzaien; hots, praktika horretan iniziatiba hartzeko. Bigarren kasu honetan, erreferenteak parte hartzen duen tartean eta espazioan euskaraz egiteko eskatuko zaie, bai erreferentearekin, bai elkarrekin.

Erabilera-urrats honetan, nola erabilera arautu egingo baita espazio batzuetan, espazio horietako bat baliatuko da erreferentearekin. Modu horretan, erreferenteak parte hartzen duenean, euskaraz egin behar dela ikusteaz gainera, eremuko araua indartuko da.

Nerabeek aurretik oso argi izan behar dute zer eskatzen zaien eta hori ez betetzeak zein ondorio izan ditzakeen. Beraz, espazio horretan erreferenteak parte hartzen duen tartean ez badute euskaraz egiten, erreferenteak taldea utziko du. Dena dela, hezitzailearen ardura izango da taldea utzi behar duen ala ez eta zein malgutasunekin jokatu erabakitzea.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

➡ Presentzia fisikoaren bidez eragiteko tresna motibazio komunikatiboan oinarritzen da, eta erreferenteak jarduera uzteko aukera motibazio instrumentalean. Lehenengo

kasuan, hezitzaileak nerabeekin duen harremana dago oinarrian; bigarrenean, aldiz, erreferenteak jarduera erakargarriago egiteko ematen duen aukera.

- Urrats honetan tresna horiek erabiltzeko –nerabeentzat helburua iristeko duen zailtasunaren arabera–, jardueraren intentsitateak altua izan behar du, edota ertaina gutxiezez. Kontuan izan behar da oraingo urrats honetan, jada, nerabeei hezitzailea tartean ez dagoenean ere euskaraz egiteko eskatzen zaiela, eta berek izango dutela erabileraren arduraren zati bat. Beraz, urrats honetara iristeko beste hainbat eginak izango ditugun arren, aldaketa kualitatiboa nabarmena da. Horregatik, jardueraren intentsitateak nahiko altua izan behar du.
- Hezitzailearen presentzia fisikoa erabileran eragiteko nahikoa izatea lortzea oso urrats garrantzitsua da, baina, tresna bezala erabiltzean, oso kontuz erabili behar da: nerabeek hezitzailea hizkuntzazko helburuekin soilik identifikatzen badute eta jarri zaizkien helburuetara iristea zaila egiten bazaie, hezitzailearekiko harremana kalte daiteke. Gertaera hori oso negatiboa da helburuak lantzeko, eta, horregatik, tresna hau erabiltzean oso ondo zaindu behar da jardueraren intentsitatea; bereziki, hezitzaileak taldean betetzen duen lekua, zeren hezitzaileak erreferentea izan behar du nerabeentzat.
- Erabilera arautua lantzen bada, oso argi eduki behar da arauak bete egin behar direla; izan ere, ezin da bete arau ezinezkorik eta ezin da jarri betearazteko asmorik ez dagoenik. Horregatik, oso ondo neurtu behar dira arauak, eta, oso argi eduki behar da zenbaterainoko malgutasuna izango duten eta nola betearaziko diren (jarduera bertan behera utziko den, jardueraren ezaugarriak aldatuko diren...).
- Erreferenteak jarduera uztea oso tresna erabilgarria bada ere, arriskutsua ere bada. Nerabeentzat helburua betetzea oso zaila bada edo erreferenteak jarduerarekiko sortzen dien motibazioa nahiko handia ez bada, erreferenteak utzi egin beharko du jarduera, eta gertaera horrek eragin negatiboak ere izan ditzake; hala nola, nerabeen hizkuntzazko arauarekiko jarrera okertzea, nerabeek jarduerarekiko motibazioa galtzea eta abar.

## ANTZERKIRAKO ADIBIDEA

Oholtza espazio euskalduna dela azalduko diegu nerabeei; oholtzaren gainean euskaraz egin behar dutela, alegia. Jarduna euskaraz izatea nahi denez gero, espazio batzuetan erabilera arautu egin dela esango zaie nerabeei; kasu konkretu honetan, oholtza espazioa arautu dela.

Nerabeak oholtzan entseguren bat egiten ari direnean, hezitzailea adi egongo da, eta, elkarren arteko harremana erdaraz denean, taldera hurbilduta eta modu aktiboan (galderak eginez, aldaketak proposatuz...), jarduerako hizkuntza aldatuko du. Behin eta berriz berdina gertatzen bada, jarduera euskaraz dela gogoratuko die nerabeei eta oholtzan euskaraz egin behar dutela. Poliki-poliki, ohartu gabe, nerabeak ohitu egingo dira hezitzailearen presentzia hutsarekin oholtzan euskaraz egitera. Horrela gertatzen ez bada eta araua gogoratuta ere ez badira ohituraz aldatzen, bertan behera utziko da entsegua eta beste ariketaren bat egingo da oholtzatik kanpo. Nerabeei azaldu egingo zaie erabaki horren arrazoia.

## UDALEKU ITXIETAKO ETA AUZOLANDEGIETAKO ADIBIDEA

Erreferente ezagun bat gonbidatuko da udalekuetara. Orientazioko jolas bat pres-tatuko da, mendi-ingururen batean gauzatzeko. Jolas horretara, mendi-kontuan aditua edo ezaguna den pertsona bat (Iñurrategi, Beloki, Bereziartua...) eramango da edo herriko ezagunen bat. Jolasean, taldeka parte hartuko dute nerabeek, eta guztiak ibilbide bera osatu beharko dute. Ibilbidean barrena, pistak aurkitu beharko dituzte, eta talde guztiak gonbidatuarekin egingo dute ibilbidearen parte bat.

Nerabeei oso argi azalduko zaie orientazioko jolas horretan euskaraz egin behar dutela. Talderen batek ez badu horrela egiten, abisu bat emango zaio. Hezitzaileak eta erreferenteak ikusten badute taldeak araua inolaz ere ez duela betetzen, jokotik kanpo utziko dute, eta, hala dagokionez, bertan behera geratuko da jolasa. Erabaki hori hartzen bada, arrazoia oso argi azaldu behar zaie nerabeei.

### 3.4 NERABEEK TALDEKIDEEKIN ESPAZIOAN DUTEN HARREMANA II

#### ERABILERA ZUZENDUAREN URRATSA

##### Proposatzen diren tresnak:

Liderraren laguntza lortzea.  
Ekintza erakargarriak baliatzea.

##### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

**Interbentzio-eremua:** Nerabeek taldekideekin espazioan duten harremana.

**Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea taldetik kanpo dagoenean erabili ahalko dira tresna horiek.

**Hizkuntzazko estrategia:** Erabilera hitzartua erabiliko da; hau da, aktibitatearen espazio jakin batzuen kasuan, euskararen erabilera adostu egingo da nerabeekin.

**Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan, integratzailean eta instrumentalean oinarritzen dira.

**Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak altua izan behar du.

#### PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA

##### Liderraren laguntza lortzea:

Nerabeek lagunartean euskara erabiltzea nahi bada eta horretarako ohitura oso finkatua ez badago, oso garrantzitsua da euskararekiko kontzientzia lantzea. Hau da, jardueran bertan, jardueraren ezaugarriak baliatuz, lor daiteke taldekideek euskaraz egitea, baina jardueraz kanpo ere euskararekiko jarrera aktiboa hartu behar dute, ohitura finkatzeko. Oso zaila da kontzientzia hori eta erabilerarako jarrera hori talde oso batekin maila berean lantzea. Horregatik, oso interesgarria izan daiteke lan horretan liderrekin aritzea.

Taldeko kideen mintzagrama bat eta soziograma bat osa daitezke. Lan horietan oin hartuta, taldekideen interakzio pertsonalak eta linguistikoak aztertuko dira. Zenbat talde, hainbat irakurketa aterako dira, eta aurrera begira nola jokatu behar den ikusten lagunduko dute. Azterketak taldeko liderrak eta lider linguistikoak (euskararen erabilerari dagozkion lider linguistikoak) bistaratuko ditu.

Gerta liteke bi rola pertsona berak betetzea, baina maiz ez da horrela izango. Hala ez denean, taldeko liderraren jokaerak aztertzea izango da garrantzitsuena, eta lider linguistikoaren rola gara dezakeen ikusi beharko da. Horrela bada, harekin lan egiteak izango du lehentasuna. Bigarren aukera izango da lider linguistikoak, taldean betetzen dituen rolen arabera, eragina izan ote dezakeen aztertzea, eta, horrela bada, bide horretatik eragiten saiatzea.

Taldeko liderrarekin lanean hastea erabakitzen bada, taldean duen eraginaz jabebarazi behar da. Era berean, hizkuntzarekiko motibazioa landu behar da, eta ahalegin berezia egingo da hizkuntzazko hainbat helburu harekin lantzeko: espazio batzuetan taldekideekin euskaraz egitera animatu eta eboluzioaren jarraipena egin, lortzen duena azpimarratu eta abar. Hizkuntzarekiko jarrera eta interesa garatzea lortzen den neurrian, erreferente garrantzitsua izango da taldearentzat. Lan handia egin beharko da horrelako liderrekin, euskaraz eroso sentitu behar baitute eta konfiantza eta babesa eman behar baitzaie. Aipatu lanean, garrantzi handia izango du hezitzaileak liderranganako eduki dezakeen motibazio komunikatiboak; hau da, hezitzailea nerabearentzat erreferentea edo aszendentziatzko erreferentea bada, lor daiteke liderrak bide hori hartzea. Taldeko liderra lider linguistiko bilakatzea lortzen bada, aiseago erdietsiko da hezitzailea taldetik kanpo dagoenean ere nerabeak elkarrekin euskaraz mintzatzea.

Bigarren aukera, esan bezala, lider linguistikoa taldean lider natural gisa indartzea da. Haurren taldeetan begirale-rolen jartzea da alderdi hori garatu ahal izateko bideetako bat. Haienez erreferentea dela konturatuko da, eta kontzientzia hori hurrekin hartzen dutenean azaldu behar zaie taldekideekin ere erreferente izan daitezkeela.

Liderrei oso argi azaldu behar zaie adin bereko taldekideen artean duten eragina hezitzaileak izan dezakeena baino askoz handiagoa dela. Taldekideen hizkuntzazko erabileran eragingo badute, bestalde, lagundu egin beharko zaie eta tresnak eskaini beharko zaizkie. Adibidez, taldean betetzen duten rola elkarrizketa batean hizkuntzazko joera aldatzeko nola balia dezaketen azaldu beharko zaie.

### **Ekintza erakargarriak baliatzea:**

Erabilera-urrats honetako interbentzio-eremu honetan, hitzartu egingo da erabilera nerabeekin. Hezitzailea tartean ez denean ere elkarren artean euskara hainbat espaziotan erabiliko dutela adostuko da.

Erabaki horrek, hasiera batean behintzat, ahalegin nahiko handia eskatuko die nerabeei, eta, beraz, ekintza erakargarriak balia daitezke hasierako ahalegin hori indartzeko. Esate baterako, ohiko jardueraz gain, ekintza berezi batzuk (edo erreferente erakargarri batzuk) balia daitezke urrats hori eman ahal izateko.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Liderraren laguntza lortzea motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen da, eta ekintza erakargarriak baliatzea motibazio instrumentalean.
- Liderrak taldean leku garrantzitsua betetzen du, eta hezitzaileak garrantzi hori azpimarratuko dio, motibazio integratzailean eraginez. Gainera, hezitzaileak nerabearekin duen harremanak pisu handia izango du puntu honetan, zeren, motibazio komunikatiboa zenbat eta indartsuagoa izan, hainbat eta errazagoa izango baita liderraren laguntza lortzea.
- Ekintza erakargarriak erabiltzea, esan bezala, motibazio instrumentalean oinarritzen da; hau da, jardueraren erakargarritasuna ekintzen bidez indartzean.
- Liderraren laguntza lortzea deritzan tresna erabili ahal izateko, nahikoa da taldeki-deentzat jardueraren intentsitatea ertaina izatea, baina liderrarentzat altua izan behar du, ahalegin handia eskatuko baitzaio.
- Ekintza erakargarriak baliatzea deritzan tresna erabiltzeko, berriz, jardueraren intentsitateak ez du garrantzi handirik, zeren tresna bera jardueraren intentsitatea indartzeko erabiliko baita: alegia, taldekideen artean euskaraz egiteko ohitura finkatzeak ahalegin handia eskatuko dienez gero, tresna hori ahalegina erraztuko dien intentsitate altua erdiesteko baliatuko da.
- Liderren laguntza lortzea oso tresna eragingarria izan daitekeen arren, arras ongi baliatu beharrekoa da. Taldeko liderra lider linguistikoa ez bada, zaila izan daiteke lider linguistikoa izateko bidea egitea, aurrez irabazia duen rola, neurri handi batean, erabiltzen duen hizkuntzarekin ere identifikatzen delako. Esate baterako, taldean txistosorola betetzen duenen bat badago, baina txisteak erdaraz kontaktzen baditu, ez da erraza izango rol bera euskaraz betetzea.
- Bestalde, liderrari protagonismo hori eta ardura hori emateko nahi horretan, gauzak nabarmenegi egiteak ondorio negatiboak izan ditzake: liderrak rola gal dezake, beste nerabeek hezitzailearen tresna besterik ez dela ikusten dutelako, edota kalte daiten nerabeek hezitzailearekin duten harremana, liderrari erabateko lehentasuna ematen diola ikusten dutelako.
- Liderraren hizkuntzarekiko kontzientzia eta hizkuntza-erabilera indartzen diren neurrian, talde osoarenak lantzeko urratsak ere eman behar dira, erabilera-urrats honetarako proposatzen diren tresnak eta estrategiak baliatuz: erabilera hitzartua, erabilera arautua, presentzia fisikoaren bidez eragitea...

## ANTZERKIRAKO ADIBIDEA

Taldeko kide guztiak haurren taldekoekin aritzera eramango dira, haurrekin teknika batzuk lantzen laguntzeko. Oso argi azalduko zaie haurren taldean euskararen erabilera lantzen ari direla eta berek ere horretan parte hartu behar dutela. Nerabeen taldeko guztiak parte hartuko dute jarduera horretan.

Jardueraren ondoren, arrakastatsua izan bada, taldeko kideekin hitz egingo da, gustura aritu diren jakiteko. Ahalegin berezia egingo da liderrarekin hitz egiteko, begiraleen eta erreferenteen rolean nola sentitu den ikusteko. Segidan, taldean bertan eragin handia izan dezakeela eta han ere hizkuntzazko helburuen eragile izan daitekeela adieraziko zaio. Proposamen zehatz batzuk egingo zaizkio eta frogatzeko eskatuko zaio.

Proposamenak oso zehatzak eta oso bitarte laburrerakoak izango dira, eta hezitzaileak jarraipena egingo du.

## GAZTELEKUKO ADIBIDEA

Musikaren espazioan aldaketak egitea proposatuko zaie taldekideei: musikako ekipamenduaz gainera, musika nahasteko mahaia eta ordenagailua ere jarriko dira.

Aldaketaren barruan, hizkuntzaren erabilera ere hitzartuko da, eta espazio horretan beti euskaraz egin behar dela adostuko da.

Aldaketa errazteko, musika nahasteko mahaia eta ordenagailua jartzen direnean, DJ ikastaro bat antolatuko da, eta aditua den norbait gonbidatuko da.



### ERABILERA NATURALERA HURBILTZEKO URRATSEKO TRESNAK

#### 4.1 NERABEEK TALDEKIDEEKIN DENBORAN DUTEN HARREMANA I

##### ERABILERA NATURALERA HURBILTZEKO URRATSA

###### Proposatzen diren tresnak:

- Informaltasuna baliatzea.
- Nerabeak begirale-rolan jartzea.
- Erreferente hurbilak baliatzea.
- Ekintza erakargarriak baliatzea

**Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:**

- **Interbentzio-eremua:** Nerabeek taldekideekin denboran duten harremana.
- **Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea taldeko partaide denean edo zentro denean erabili ahalko dira tresna horiek.
- **Hizkuntzazko estrategia:** Erabilera hitzartua baliatuko da; hau da, euskararen erabilera adostu egingo da nerabeekin, aktibitatearen espazio jakin batzuei dagokienez.
- **Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan, integratzailean eta instrumentalean oinarritzen dira.
- **Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak altua izan behar du.

**PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA****Informaltasuna baliatzea:**

Berezko erabilerara hurbiltzeko urratsean, jardueraren barruko espazio eta denbora-bitarte batzuetan guztia euskaraz egiteko eskatzen zaie nerabeei, baina, kasu honetan, hitzartu egiten da erabilera. Salto hori egitea, noski, ez da erraza, eta, horregatik, hezitzaileak tarte informalak baliatu behar ditu nerabeei urrats hori egiten laguntzeko.

Jarduera guztiek izaten dituzte espazio edo denbora-bitarte informalak, eta egoera informaletarako bidea ematen duten espazio-denboretan nerabeekin erlazionatzen saiatu behar du hezitzaileak, dela elkarriketak sortuz, dela nerabeen elkarriketetan parte hartuz. Modu horretan, errazagoa izango da nerabeentzat euskaraz aritzea eta ohiturak finkatzea.

Nerabeek jabetu behar dute hezitzaileak hitzartua betetzen lagundu nahi diela eta ez duela kontrolatzailearen rola jokutzen. Horregatik, hezitzaileak gateekiko interesa erakutsi behar du tarte informaletan. Hortaz, jarduerarekin zerikusia duten eta ez duten gaiez aritu behar du, eta abar.

Nolanahi ere, hezitzailea konturatzen bada nerabeek ez dutela hitzartua betetzen, gorabehera horretaz mintzatu beharko du nerabeekin, eta adostua betetzera animatu eta motibatu beharko ditu.

**Nerabeak begirale-rolean jartzea:**

Nerabeak begirale-rolean jartzea oso tresna aproposa izan daiteke euskararen erabilera indartzeko. Bi modutara egin daiteke lan hori: jardunean bertan begiralearen rola emanez eta zenbait ekintzaren antolaketaren ardura emanez, edota berak baino gaztetxoagoak direnen taldeetan begirale laguntzaile moduan jardunaraziz.

Bigarren kasu horretan, gaztetxoagoekin hainbat teknika edo ariketa lantzen lagunduko diote hezitzaileari. Zeregina burutzean, taldeetan zein helburu dauden ezarriak azalduko zaie; hizkuntzazko helburuak barne. Hizkuntzazko helburuak lantzeko garaian nola jokatzeko nahi den ere azalduko zaie.

Modu horretan, nerabeak hizkuntzazko helburuen sustatzaile izango dira gaztetxoagoen taldeetan. Horretara helduz gero, errazagoa izango da hizkuntzarekiko jarrera



kontziente bat hartzen hastea, eta beren talderako helburu batzuk hitzartzeko eta betetzeko prest egotea.

### **Erreferente hurbilak baliatzea:**

Baldin nerabeekin hitzartzen bada jardueraren denbora-bitarte batzuetan euskara soilik erabiltzea, erabakia betetzen lagundu behar zaie, ahalegina nahiko handia izango da eta.

Ahaleginerako, oso aproposa izan daiteke hurbileko erreferenteen laguntza lortzea: jarduera bera egiten duten baina helduagoak diren gazteena, adibidez. Erreferenteak taldera gonbidatuko dira eta zenbait saiotan taldekideekin batera arituko dira.

Erreferenteak oso erakargarriak izaten dira nerabeentzat, eta, hizkuntzazko helburuak argi badituzte, laguntza handia eman dezakete. Azken batean, taldekoak are gazteagoekin begirale-rolean jartzea proposatzen den bezala, helduagoek rol bera bete dezakete talde honetan, baina betiere adinaren eta taldearen ezaugarrietara egokituta, noski.

Gainera, hurbileko erreferenteak euskara erabiltzeko ohitura dutenak badira (ahal den neurrian hala izan behar dute), jardueratik kanpo ere mantendu ahal izango dute harremana nerabeekin, eta nerabeen euskarazko harreman-sareak zabaltzeko eta sendotzeko balioko dute.

### **Ekintza erakargarriak baliatzea:**

Aipatu bezala, nerabeei ahalegin handia eskatzen zaie, zeren jarduerako hainbat espaziotan eta unetan euskaraz bakarrik mintzatu behar baitute. Hortaz, ekintza erakargarriak balia daitezke haien egitekoaren irizgarri. Ohiko jardueraz gainera, ekintza berezi batzuk edo erreferente erakargarri batzuk balia daitezke, urratsa gaunditzen laguntzeko.

## **KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

- Proposatzen diren tresna horiek hiru motibazioetan oinarritzen dira: integratzailean, komunikatiboan eta instrumentalean.
- Motibazio komunikatiboan oinarritzen dira tarte informalak baliatzeko tresna eta erreferente hurbilak baliatzekoa. Bietan, nerabeek helduagoekin komunikatzeko duten interesean funtsatzen da helburuen lantzea.
- Motibazio integratzailean oinarritzen da nerabeak begirale-rolean jartzeko tresna. Kasu horretan, ardura batzuk hartzen dituztenek rol berriak lantzen dituzte, eta egitate horrek erakunde antolatzailearekin gehiago identifikatzea eta hezitzailearen mailara hurbiltzea ekartzen duenez gero, motibazio integratzailea indartsua da.
- Motibazio instrumentalean oinarritzen da, berriz, ekintza erakargarriak baliatzeko tresna, zeren jardueraren erakargarritasuna indartzea bilatzen baita ekintza berezien bidez.



- Jardueraren intentsitateak, berriz, altua izan behar du, aurrerapausoak eman nahi badira. Nerabeei ahalegin handia eskatzen zaie erabilera-urrats honetan, eta aurrera egin ahal izateko intentsitate handia behar du jarduerak. Hori dela eta, lau tresnetako hiruk intentsitatea indartzeko ere balio dute: ekintza erakargarriak baliatzea horretarako sortutako tresna da, begirale-rola hartzea gauza berria da eta oso erakargarria nerabeentzat, eta hurbileko erreferenteak ere oso erakargarriak dira nerabeentzat. Tarte informalak erabiltzeak, aldiz, ez du intentsitatea indartzeko balio, baina oso tresna aproposa da ohiturak finkatzeko.
- Tarte informalaren erabilerari dagokionez, hezitzaileak nerabeekin duen harremana ezin da mugatu jarduerako ekintza arautuetara; hezitzaileak espazio informaletan ere erlazionatu behar du nerabeekin. Jarduera orok berez izaten ditu tarte informalak, eta hezitzaileak dena delako tarteak baliatu behar ditu nerabe guztiekin erlazionatzeko.
- Hurbileko erreferenteen erabilerari dagokionez, argi izan behar da baliatzen diren erreferenteak egokiak direla. Batetik, nerabeentzat ezagunak edota erakargarriak izan behar dute, eta, bestetik, hizkuntzari dagokionez ere egokiak. Erreferenteek, noski, oso argi izan behar dute hizkuntzazko helburuak zein diren.

#### ANTZERKIRAKO ADIBIDEA

Entsaioak egiten direnean, eten bat egingo da saioaren erdi aldera. Tarte hori, egindako lana baloratzeko eta jenderen iritziak jasotzeko erabiliko da. Modu informalean, leku goxo bat aukeratuta, hainbat gai izan daitezke hizpide: antolaketaekin zerikusia duten gaiak, emanaldien inguruko gaiak, asmo berriak eta abar. Horrelako denbora-bitarteetan euskaraz egingo dutela itzartuko da, eta, hezitzailea partaide denez gero, errazago gertatuko zaie hitzartua betetzea.

Horrelako tarteak egokiak dira nerabeen arteko harremana eta hezitzailearekin dutena lantzeko. Nerabeek jarduerarekiko duten motibazioa neurtzeko ere oso aproposak dira.

#### UDALEKU ITXIETAKO ETA AUZOLANDEGIETAKO ADIBIDEA

Zenbait ekintzatan, begirale-rola hartzeko eskatuko diegu nerabeei: gaubelak antolatzean, taldekako ekitaldiak egitean eta abarretan. Horrelako ekintzen antolaketa aritzea oso motibagarria izaten da nerabe askorentzat, eta batzuen inplikazioa handia izaten da.

Ekintzaren prestaketa, antolaketa eta koordinazioa utziko dira beren esku. Begirale-rolari dagozkion funtzioak berek beteko dituzte eta hezitzaileek taldean hartuko dute parte. Ekintzaren ezaugarri orokorrak adostu egingo dira nerabeekin, antolaketari ekin baino lehen, eta, tartean, hizkuntzari dagozkion puntuak ere hitzartuko dira.

## KIROL-JARDUNAREN ADIBIDEA

Teniseko entrenamenduetan, helduagoak direnen taldeetako kide batzuk gonbidatuko dira saioetan parte hartzera. Taldekide bakoitzak helduago batekin osatuko du bikotea, eta beste bikote baten aurka arituko dira partidatxoak jokatzen. Tarte horretan, teknikari eta pistan kokatzeari buruzko hainbat aholku emango dizkio helduenak gazteenari.

Helduagoi, noski, oso argi azalduko zaizkie hizkuntzazko helburuak, eta behar bezala adieraziko zaie berek nola jokatzea espero den.

### 4.2 NERABEEK TALDEKIDEEKIN DENBORAN DUTEN HARREMANA II

#### ERABILERA NATURALERA HURBILTZEKO URRATSA

##### Proposatzen diren tresnak:

Liderren laguntza lortzea.  
Ekintza erakargarriak baliatzea.

##### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

**Interbentzio-eremua:** Nerabeek taldekideekin denboran duten harremana.

**Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea taldetik kanpo dagoenean erabili ahalgo dira tresna horiek.

**Hizkuntzazko estrategia:** Erabilera hitzartua baliatuko da; hau da, euskararen erabilera adostu egingo da nerabeekin, aktibitatearen espazio jakin batzuei dagokienez.

**Motibazioak:** Tresna hauek motibazio komunikatiboan, integratzailean eta instrumentalean oinarritzen dira.

**Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak altua izan behar du.

#### PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA

##### Liderren laguntza lortzea:

Tresna hori erabilera zuzenduaren urratserako ere proposatu da (2.2.4 puntuan). Han zehaztu den gisan, taldeko liderrak lider linguistiko bihurtzea oso tresna proposa izan daiteke erabilera-urratsetan aurrera egiteko.

Berezko erabilerara hurbiltzeko urratsean, baldin denbora-bitarte batzuetan erabat euskaraz aritzea adostu bada eta erabakia betez bada, liderraren laguntza lortzea oso garrantzitsua izango da, helburua jardun osoan euskaraz egitea izango dela aurreikus-ten denerako.

Aurreko urrats gehienetan, hezitzailea taldeko zentroa eta partaidea denean baliatzeko markatu dira estrategia nagusiak. Alabaina, euskara erabiltzeko ohitura finkatuko bada, ezinbestekoa da hezitzailea taldetik kanpo dagoenean ere hizkuntza horretan mintzatzea lortzea.

Urrats honetan, helburu horri begira, hainbat denbora-bitartetan euskaraz egitea adostuko da, eta oso lagungarria izango da liderraren laguntza lortzea, hitzartua aiseago betetzeko.

### **Ekintza erakargarriak baliatzea:**

Erabilera urrats honetako fase honetan, hezitzailea tartean ez denean ere hainbat denbora-bitartetan euskaraz hitz egitea eskatzen zaie taldeko kideei, baina bi aldean artean adosten da erabilera.

Jokamodu horrek, hasiera batean behintzat, nahiko ahalegin handia eskatuko die nerabeei, eta, horregatik, ona da ekintza erakargarriak baliatzea, hasierako ahaleginaren sendogarri. Beraz, ohiko jardueraz gainera, ekintza berezi batzuk edo erreferente erakargarri batzuk balia daitezke markatutako urratsa egiten laguntzeko.

### **KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

- Liderraren laguntza lortzea motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen da, eta ekintza erakargarriak baliatzea motibazio instrumentalean.
- Liderraren laguntza lortzea deritzan tresna erabili ahal izateko, nahikoa da taldeki-deentzat jardueraren intentsitatea ertaina izatea, baina liderrarentzat altua izan behar du, ahalegin handiagoa eskatuko baitzaio.
- Ekintza erakargarriak baliatzea deritzan tresna erabiltzeko, berriz, jardueraren intentsitateak ez du garrantzi handirik, zeren tresna bera jardueraren intentsitatea indartzeko erabiliko baita: alegia, taldekideen artean euskaraz egiteko ohitura finkatzeak ahalegin handia eskatuko dienez gero, tresna hori ahalegina erraztuko dien intentsitate altua erdiesteko baliatuko da.
- Txosten honetako 2.2.4 puntuan azaltzen da liderrak nor diren nola deduzi daitekeen, laguntza nola lor daitekeen eta tresna horretan zer gauza hartu behar diren kontuan.
- Ekintza erakargarrien tresna baliatzea proposatzen den hirugarren aldia da; hau da, erabilera zuzenduaren urratsean eta berezko erabilerara hurbiltzeko urrats honetako aurreko urratsean ere proposatzen da. Kontuan izan behar da ezen, ekintza erakargarriak erabiltzea begiz jotzen denean, une batzuetan jardueraren intentsitatea handitzea dela xedea. Izan ere, taldean hizkuntza aldetik desoreka bat sortu nahi denean eta nerabeei ahalegin nahiko handi bat eskatu nahi zaienean izan daiteke oso aproposa intentsitatea igotzea. Horregatik, tresna hau ezin da etengabe erabili; ondo erabaki behar da noiz eta nola jarri praktikan. Maizegi baliatuz gero, eragingarritasuna gal dezake.

## GAZTELEKUKO ADIBIDEA

Gaztelekuko jarduera batzuen antolaketa nerabeen esku utziko da. Oinarriak adostuko dira, eta hizkuntzaren erabilera ere adostuko da.

Antolaketa zehaztean, liderrak ardura hartzea bideratu behar da. Liderrarekin, antolaketari buruz hitz egin beharko da, eta hizkuntzazko helburuena azpimarratuko zaio. Hezitzaileak konfiantza osoa agertuko dio. Konfiantzak, gainera, taldekide guztien aurrean geratu behar du argi.

Behin jarduera gauzatuta, ebaluazioa egin behar da: liderrarekin, batetik, eta talde osoarekin, bestetik. Liderrari egindako lana eta ahalegina azpimarratuko zaizkio, ahalik eta mezu positiboena emanez. Ebaluazioa talde osoarekin egitean ere taldekide guztiek egindako ahalegina azpimarratuko da.

## KIROL-JARDUERAKO ADIBIDEA

Jarduera erakargarriak hainbat eta hainbat izan daitezkeen arren, hona hemen ideia batzuk:

Entrenamenduak talde garrantzitsu baten zelaian egitea.

Entrenamendu edo partida bereziak ikustera joatea.

Bideoan edo DVD formatuan dauden partidak edo filmak ikustea.

Bideoan, telebistan edo bestelako euskarriren batean sekuentzia batzuk ikusi ondoren, haiek aztertzea eta jardunean aplikatzen saiatzea.

### 4.3 JARDUN OSOKO HARREMANA:

#### ERABILERA NATURALERA HURBILTZEKO URRATSA

##### Proposatzen diren tresnak:

Liderraren laguntza lortzea.

Sariak baliatzea.

##### Tresna jakin horiek erabiltzeko irizpideak:

**Interbentzio-eremua:** Jardun osoko harremana.

**Hezitzailearen taldeko kokapena:** Hezitzailea taldetik kanpo dagoenean erabili ahaliko dira tresna horiek.

**Hizkuntzazko estrategia:** Erabilera hitzartua baliatuko da. Jardun osoan euskaraz arituko direla adostuko da.

**Motibazioak:** Tresna horiek motibazio komunikatiboan, integratzailean eta instrumentalean oinarritzen dira.

**Jardueraren intentsitatea:** Jardueraren intentsitateak altua izan behar du.

## PROPOSATU DIREN TRESNEN AZALPENA

### Sariak baliatzea:

Erabilera-urrats honetan, taldekideek jardun osoan euskaraz egiteko ohitura finkatzea lortu nahi da; hau da, jardunaren espazio guztietan eta denbora osoan, nerabeek elkarrekin euskaraz egiteko ohitura finkatu nahi da.

Fase honetara igaro aurretik, lortua izan behar da hezitzailea tartean ez denean ere espazio batzuetan eta denbora-bitarte batzuetan taldekideak elkarrekin euskaraz aritzea. Hala ere, jardun osoan euskaraz aritzera iristea ez da urrats erraza, eta talde askoren kasuan kosta egingo da ohitura hori finkatzea.

Fase hori oso aproposa izan daiteke sariak erabiltzeko. Sari erakargarriak proposatuz gero, ahalegin hori egitea errazagoa izan daiteke partaideentzat, eta erabilera-ohiturak finkatzen laguntzeko akuilu izan daitezke. Gainera, sariak lortzen badituzte edo horretarako bidean badaude, behin eta berriz gogoratuko dute zein diren erabilerari dagozkion lorpenak.

### Liderraren laguntza lortzea:

Berezko erabilerara hurbiltzeko urratseko azken fase honetan, aurreko urratsean eta erabilera zuzenduarenean proposatzen den bezala, oso tresna aproposa izan daiteke liderraren laguntza lortzea, taldeak jardun osoa euskaraz egiteko ohitura finka dezan.

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Sariak baliatzea motibazio instrumentalean oinarritzen da. Jarduera ahalik eta erakargarrien egiteko, sariak baliatuko dira. Liderraren laguntza lortzea, berriz, motibazio komunikatiboan eta integratzailean oinarritzen da.
- Sariak baliatzea izeneko tresna erabiltzeko, hasiera batean ez da oso garrantzitsua jardueraren intentsitatea aldagaia, zeren tresna bera intentsitatea handitzera bideratua baitago. Erabilera-urrats honetan, nerabeek eskatzen zaien ahalegina egin ahal izateko, intentsitateak altua izan behar du.
- Liderraren laguntza lortzea deritzan tresna erabili ahal izateko, nahikoa da taldeki-deentzat jardueraren intentsitatea ertaina izatea, baina liderrarentzat altua izan behar du, ahalegin handiagoa eskatuko baitzaio.
- Txosten honetako 2.2.4 eta 2.3.2 puntuetan azaltzen da liderraren laguntza nola lor daitekeen eta tresna horretan zer gauza hartu behar diren kontuan.
- Sariak baliatzea oso tresna aproposa da jardueraren intentsitatea igoarazteko eta erabilerako ohiturak finkatzen ahalegintzeko. Hala ere, kontuan izan behar da erabilera-ohiturak finkatzea ez dela erraza, eta tresna hau erabiltzen ari garenean ere taldekideek, batzuetan, erdarara jo dezaketela. Une horietan, hezitzaileak taldeko partaide edo zentro izatera pasatu behar du eta beste tresna batzuk erabiltzen saiatu behar du: presentzia fisikoaren bidez eragitea, elkarrizketetan sartzea, helburua zein den gogoraraztea... Baloratu egin behar da nerabeek egiten duten ahalegina, eta saria lortzeko

laguntza eman behar zaie.

- Sarien tresna beste hainbat erabilera-urratsetan ere balia daiteke, motibazio instrumental indartzeko bide bezala. Hala ere, azken erabilera-urratsera bitartean ez proposatzeko hautua egin da. Sariak erabiltzea oso eragingarria izan daiteke, baina, behin tresna hori baliatzen hasita, nerabeak horretara ohitzen badira, kamustu egin daiteke beste tresna batzuen eragingarritasuna, zeren, erabileran aurrerapausoak egiteko, zerbait nahiko dute ordainetan. Gainera, erabilera hitzartua ez da hasierako urratsetan baliatzen, eta, sarien tresna erabiltzeko, hitzartu egin behar da erabilera zein izango den. Azkenik, sarien tresna maiz erabiltzen bada, erakargarritasuna gal dezake eta eragingarritasuna ere bai, aldi berean: lehenengo aldiz proposatzen den sari bat oso erakargarria izan daiteke, baina laugarren aldiz proposatzen denean ez da horren erakargarria izango. Bestalde, oso arriskutsua da erakargarritasuna mantentzeko sariak hobetzen aritzea, zeren bukaerarik gabeko kontua gerta baitaiteke.
- Sariak eskatzen zaien ahaleginaren arabera izan behar du.
- Sari moduan, bakarka lortu ezin duten zerbait eskaini behar zaie. Sariak, gainera, talde osoarentzakoak izan behar dute.
- Sariak epe laburrean edo luzean eskuratzekoak izan daitezke, erdietsi beharreko helburuen zailtasunaren arabera. Adibidez, helburu xume samar batek aski berehalako saria izan dezake eta ikasturte osoko helburu handiago batek epe luzea hartuko du.

## HAINBAT ADIBIDE

Antzerki emanaldietako sarrerak banatzea.

Bidai bat egitea:

- Antzerki-aste bat antolatzen den herriren batera.
- Europako beste herrialderen batera joatea txapelketa bat jokatzera.
- Beste herri bateko gazteleku bateko nerabeekin trukeren bat egitea.

Kirol-saioetarako sarrerak banatzea.

Kirol-saioetarako txangoak antolatzea.

Afariak antolatzea.

Bertso-afari bat antolatzea udalekuetan.

Gaztelekuan bertan afari bereziren bat egitea.

CDak eta elastikoak egitea eta banatzea.

Eskola orduz kanpoko jarduera askotan, normala da komunikatzeko gaitasun ezberdineko taldeak aurkitzea. Kasu horietan, euskaraz nekez komunikatzen direnak eta erraz komunikatzen direnak nahastuta egongo dira, eta gerta daiteke batzuek beren artean ere euskaraz egitea eta beste batzuek hezitzaileari ere euskaraz ez egitea.

*Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko* proiektuan, taldeak hartzen dira oinarri: taldeentzat jartzen dira helburuak eta taldeentzat zehazten dira tresnak eta estrategiak. Komunikatzeko gaitasun ezberdineko nerabeak biltzen diren taldeetan, talde osoa hartu behar da kontuan eta osotasunaren arabera jarri behar dira helburuak.

Nerabeetako batzuek beren artean euskaraz egiteko ohitura izan arren, beste batzuek ez badute batere egiten, erabilera atseginaren urratsetik abiatu beharko du taldeak. Talde guztia aurrerapausoak eginez doan neurrian, hurrengo erabilera urratsetan kokatu ahal izango da taldea.

Dena dela, gorabehera horrek ez du esan nahi talde horretako nerabe guztiekin berdind jokatu behar denik. Euskaraz egiteko ohitura dutenen kasuan, ohitura ez galtzeko ahalegina egin behar da, eta horretarako, agian, erabilera zuzenduaren urratseko edo berezko erabilerara hurbiltzeko urratseko estrategiak eta tresnak erabili beharko dira. Gainera, horrelako ezaugarriak dituzten taldeen kasuan, estrategiekin ondo asmatuz gero, taldeak azkarrago egingo du ibilbidea, zeren euskaraz egiteko ohitura dutenek prozesua azkartzeko aukera emango baitute.

### 5.1 EUSKARAZ KOMUNIKATZEKO GAITASUNIK EZ DUENEN BAT TALDEKIDE IZATEARI BURUZ

Gero eta ohikoagoa da nerabe-taldeetan euskaraz ez dakien norbait egokitzea. Maiz gertatzen da, esate baterako, kanpotik etorri berriak diren nerabeen kasuan.

Horrela denean, *Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko* proiektuaren ikuspegitik, oinarri hauei erreparatu behar zaie:

Nerabea taldean integratu behar da, baina ez dezake jarduera erabat baldintzatu. Mantendu egin behar dira jardueraren ezaugarriak, baina leku bat egin behar zaio nerabeari, eta kontuan hartu behar dira haren ezaugarriak. Bestalde, jokatzeko modua ezartzean, aski determinantea izango da taldea sortu berria den ala jardueran lehendik ari den.

Talde sortu berrien kasuan, taldea erabilera atseginaren urratsean kokatuko da. Nahiz eta taldeko gehienak beste urrats batean kokatzeko moduan egon, helburua talde osoa kontuan hartuta jarri behar denez gero, erabilera-urrats horretan kokatuko da. Dena dela, egitate horrek ez du esan nahi taldeko guztiekin berdind jokatu behar denik. Euskaraz aritzeko iniziatiba hartzen duten nerabeak baldin badaude, mantendu beharko dira, gutxienez, nerabeen

arteko harremaneko eta hezitzailearekin duten harremaneko ohiturak. Horretarako, erabilera zuzenduaren urratseko edo berezko erabilerara hurbiltzeko urratseko estrategiak eta tresnak erabili ahal dira. Modu horretan, gainera, taldeak kondizio oso aproposak izango ditu erabilera atseginaren urratsean aurrerapausoak nahiko bizkor egiteko.

- Taldea jardueran lehendik ari bada eta hizkuntzazko helburu batzuk landu izan badira, dagokion erabilera-urratsean mantenduko da. Hau da, taldea erabilera zuzenduaren urratsean badago ez da erabilera atseginaren urratsera jaitziko. Euskaraz komunikatzeko gai ez diren nerabeei jarduerak helburu batzuk dituela eta prozesu batean dagoela ulertarazi behar zaie, eta berek ere horretara iristeko ahalegina egin beharko dutela adierazi. Noski, horretarako hezitzailearen eta beste nerabeen laguntza ere izango dutela esan behar zaie. Taldea jardueran lehendik ari den kasuetan, seguruenik zaila izango da prozesuan aurrera egitea, eta harik eta beste nerabeak erabilera-urrats horretara hurbiltzen diren arte, nahikoa izango da erabilera-urrats horretan mantentzea eta dagozkion erabilera-ohiturak indartzea.

Komunikatzeko gaitasunik ez duen nerabearen kasuan, gainera, ondoko irizpide hauek kontuan hartzea gomendatzen da:

- Euskaraz komunikatzeko gaitasunik ez duen nerabeak jakin behar du taldeak hizkuntzazko helburu batzuk dituela eta taldean integratu nahi badu ahalegin bat egin beharko duela (hizkuntza ere taldean integratzeko bide bat dela).
- Hezitzaileak taldeari euskaraz emango dizkio azalpenak. Nerabeak ulertzen ez baditu, berari segidan azalduko zaizkiola adieraziko zaio. Nerabeari azalpenak euskaraz ematea komeni da, horretarako behar diren baliabideak erabiliz (mimika, tresnak...). Helburu hori betetzea oso zaila bada, tarteka-marteka balia daiteke bere hizkuntza.
- Hezitzaileak *begirale berritsu* moduan jokatu behar du; hau da, nerabeari gauzak galdetu, proposatu, eskatu... egin behar dizkio, eta, galderetan erantzunak emanaz, gauzak errepikaraziz eta abar, baliabideak eskaini behar dizkio, euskara landuz joan dadin. Beste nerabeek, berriz, ez dute itzultzaile aritu behar. Ulertu behar dute euskara ikasten ari dela eta prozesu horretan ez dela egokia itzultzaile jardutea. Hezitzaileak emango dizkio azalpenak, eta nerabeek lagun diezaiokete, baina baliabideak eskainiz, ez itzultzaile arituz.





Helburuak ondo zehaztu behar dira. Euskararen erabileran eragin nahi bada, ezinbestekoa da zer lortu nahi den argi jakitea. Helburua ondo zehazten bada, neurkizun izango da; hau da, helburuak berak emango ditu neurgailuak. Adibidez, xedea bada nerabeek hezitzaileari beti euskaraz hitz egitea, xedeak berak erakusten du nola neurtu: euskaraz hitz egiten badiote, helburua lortu da. Euskaraz hitz egiten ez badiote edo tarteka hitz egiten badiote, helburua ez da lortu. Helburuari, bestalde, epe bat ere jarri behar zaio: zehaztu egin behar da ikasturte osorako helburua izango den, hilabete baterakoa...

Lor daitezkeen helburuak jarri behar dira. Horretarako, ezinbestekoa da nerabeen komunikatzeko gaitasuna eta haien euskara erabiltzeko inizatiba aztertzea. Azterketak erabilera-urrats batean kokatzen du taldea, eta orduan zehaztu ahal dira helburu egokiak. Adibidez, hezitzaileari ere erdaraz hitz egiten dion talde baten kasuan, ezin da helburu izan bi hilabeteko epean beren artean beti euskaraz mintzatzea.

Ondo aztertu behar dira jardueraren ezaugarriak eta ondo neurtu behar dira baliabideak:

- Talde batekin lan egitean, jarduera batean lorkizun diren helburuak beste jarduera batean ez dira hala izango. Hau da, helburuak zehazteko tenorean, oso kontuan hartu behar dira jardueraren maiztasunak, hezitzaile bakarraren ardurapean dagoen nerabe-kopurua eta abar. Adibidez, gazteleku batean bi hezitzaile ari badira lanean, nahiz eta nerabeen ezaugarriak antzekoak izan, helburu ezberdinak jarri beharko dira egunero 10 nerabe hurbiltzen diren kasuan eta 40 nerabe hurbiltzen diren kasuan.
- Jardueraren ezaugarriak aztertzean, jarduerarekin harremanetan dauden eragileak ere aztertu behar dira, zeren hainbat faktorek eragin dezakete helburuetan eta estrategietan. Adibidez, saskibaloiko taldea entrenatzen den leku eta ordu berean, helduagoak direnen arteko beste talde bat entrenatzen bada, nagusien taldeko hizkuntzazko ohiturek eragin handia izan dezakete beste taldean. Euskarazko ohiturak badituzte, estrategietan eta tresnetan txertatzeko ahalegina egin behar da; erdararako ohitura badute, berriz, eragina neutralizatzeko eginahala.

**Sistematikoki eragin.** Nerabeek argi ikusi behar dute zer den hizkuntzari dagokionez eskatzen zaiena, eta, horretarako, hezitzaileak sistematikoki aplikatu behar ditu estrategiak eta tresnak. Nerabeek kontraesanean dauden mezuak jasotzen badituzte, ez dute aurrerapausorik egingo. Dena dela, hainbat tresna malgutasunez ere aplikatu daitezke, hala egoki iritziz gero, baina hezitzaileak oso ohartuki jokatu behar du era horretan: nerabeek egiten duten ahalegina handia dela ikusten bada, momentu batzuetan bare daiteke tentsioa, indarberritzeko eta berriz hasteko. Adibidez, berezko erabilerara hurbiltzeko urratsean, hitzar daiteke nerabeekin jardun osoan euskaraz egingo dutela eta balia daitezke sariak helburua errazago lortzeko. Nerabeek batzuetan erda-

rara jotzen badute, hezitzailea taldera hurbilduko da, eta, presentzia fisikoaren bidez, elkarrizketen bidez edo adostutakoa gogoratuz, euskaraz bideratuko du jarduera. Nolanahi ere, nerabeek benetan ahalegin handia egiten dutela ikusten badu, taldera ez hurbiltzeko hautua egin dezake zenbaitetan, tarte batzuetan erdaraz hitz egiten utziz.

➤ **Ebaluazioei garrantzia eman.** Helburuak ondo zehaztu baziren, lorkizun baziren, prozedura sistematikoki aplikatu bada... merezi du behar bezala ebaluatzea. Egindako ahaleginak emaitzarik eman duen ala ez ikusi behar da: baiezko kasuan, hurrengo helburuak jartzeko; ezezko kasuan, arrazoiak jakiteko eta segidako alderdi hauek berriro zehazteko: helburuak egokiak ziren, ondo aplikatu diren, helburu berekin jarraitu behar den, beste batzuk jarri behar diren...

Azken batean, hezitzaileak erabilera sustatzeko ahalegina jardueraren parte bezala ikusi behar du, eta zeregin hori ondo betetzen ahalegin du behar du. Lan horrek ez du karga bat izan behar hezitzailearentzat, baizik eta hezitzaile den ikuspegitik gogoz egiten duen ahalegin gisa hartu behar du. Horrela izan dadin, ordea, ezinbestekoa da ahalegina ondo planifikatzea.





Giza Eskubideak Derechos Humanos



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Foruak, giza eskubideak eta soziala. Dependentzia,  
Inperiencia para el Bienestar Social y el Empleo



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Giza Eskubideak, Enplegua eta Giza Eskubide Dependentzia  
Eskubideak, Empleo y Dependencia Social